



PAUL BILBAO

Lema, norabidea, lemazaina

Jakin aldizkariari eskerrak ematea litzateke lehen eginkizuna. Lehenik eta behin, eskerrik asko gure hizkuntza-komunitateari egiten diozuen ekarpenarengatik, eta, bigarrenik, eskerrik asko ekarpen horietan gurea ere txertatzeko aukera eskaintzeagatik.

Azken urteotan Xabier Mendiguren Bereziarturi egokitu izan zaio artikulu hau idaztea, baina Kontseiluko itsasontziaren lemazain izan dugun Xabierri erretreta ofiziala hartzeko garaia etorri zitzaion 2010eko apirilean. Ofiziala diot; izan ere, jakin dakit Xabierrek ez duela inoiz ere euskalgintzan erretretarik hartuko. Hartara, itsasontzi handi honen lema hartzeak hala eskatzen duelako, saiatuko naiz urteak zer eman duen laburtzen.

Bestalde, ezin ahaztu 2010ean euskararen normalizazioan eta herrigintzan izan dugun beste lemazain batek utzi gaituela. Urtetan arnagune euskaldun geografikoak lantzen, antolatzen eta koordinatzen jardun duen Iñaki Arregi.

Krisiaren (eta aitzakien) ondorioak

2010 urtean ere krisiaren ondorioak jasan behar izan ditu gizarateak. Horrek euskalgintzaren jardunean ere isla izan du. Euskalgintzak proiektuak aurrera eramateko beharrezkoak dituen baliabide ekonomikoak iturri desberdinetatik datoz, eta horietan guztietan igarri da gizaratean bizi izan den kezka ekonomiko orokorra. Horrela, Eusko Jaurlaritzan %3,13ko jaitsierak izan dituzte dirulaguntza-programek.

Hala ere, onartezina da administrazio batzuek aplikatuta-ko beherakada. 2010 urteari dagokionez, Bizkaiko Foru Al-
dundiak %29,44ko beherakada aplikatu die euskararen sus-
tapenerako proiektuei esleitzen dizkien laguntzei. Gipuzko-
akoak, aldiz, %20ko beherakada.

Desoreka agerikoa da jarrera horietan. Lehenik eta behin,
kontuan izan behar dugu aipatu erakundeetako aurrekontu
orokorrek ez dutela horrelako beherapenik izan, eta, ondo-
rrioz, ez da ulertzen zergatik aplikatu behar zaion jaitsiera
hizkuntza-normalizazioaren esparruari. Hizkuntzaren nor-
malizazioa, euskaldunak euskaraz bizi ahal izatea, euskaraz-
ko produktuak euskaraz kontsumitu ahal izatea..., hau da,
euskalgintzak herritarren eskura jartzen duen guztia ez ei-
da estrategikoa herriaren garapenean. Kontraesankorra era-
bat, kontuan hartuta hizkuntza dela herria egituratzen duen
ardatza.

Horrekin batera, gerrikoa estutzeko garaia dela adierazi
zaio euskalgintzari. Hala ere, euskalgintzari gerrikoa lar es-
tuarazi diote. Euskalgintzak, oro har, askotan ibili behar iza-
ten du gerrikoa estutzen, eskuartean dituen baliabide eska-
sak ongi kudeatzen baitaki. Gizarteko beste eremu batzue-
tan injekzio ekonomikoak egin behar direla entzun behar
izan dugu, baina badirudi euskalgintzak ez duela injekzioen
beharrik.

Finean, euskalgintzari krisiarengatik murrizketak egokitu
zaizkio, eta beste sektore batzuei arrazoi berdinarengatik di-
rulaguntzak edota inbertsioak handitu. Hartara, instituzioei
gogorarazi behar zaie euskalgintzako erakundeetan ere langi-
leak daudela. Are gehiago, euskalgintzako erakundeek gizar-
te-segurantzari ekarpena egiten diote, fakturatu egiten dute,
eta, ondorioz, diru-sarrerak eragiten dituzte ogasunean. Hor-
taz, errespetu osoz, baina ez dago onartzerik horrelako be-
reizkeriarik egitea, herri ikuspegia kontuan ez hartzeaz gain,
ikuspegi ekonomikotik ere diskriminazioa aplikatzen baitute.
Finean, krisi egoeran eta krisi gabe diru-baliabideak zenbat
eta non inbertitzen diren erabakien ondorioak dira.

Egia deserosoa: hizkuntza-politikaz esaten ez dena

Al Gorek 2006an prestatutako *An Inconvenient Truth* izeneko dokumentalak hautsak harrotu zituen mundu zabalean. Izan ere, egia deseroso bat jarri nahi izan zuen agirian, eta hori gizarteratzeari ekin zion. Horrenbesteko arrakastaz ekin zion, ezen Oscar saria ez ezik Nobel saria ere jaso zuen Al Gorek.

Finean, errealitate bat azaldu zuen dokumentalaren bidez: berotze-efektuaren ondorioak hedatu zituen, baina guztiok ulertzeko moduan. Emozioak baliatu zituen jendearengan eragiteko, eta gobernuek zer egiten duten, bai eta zer egiten ez duten ere, azaldu zuen.

Kontseiluak 2010ean bi urteko lanaren lehen ondorioak aurkeztu izan ditu, hain zuzen ere, hizkuntza-politika orokorren azterketaren ondorioak. Azterketa horrek erakutsi du hizkuntza-politikaz esaten ez dena ere jakin eta zabaldu behar dela. Marketin instituzionalaren ondorioz dena ondo doala zabaldu izan dute azken urteotan, eta azkenean horrek eragina izan du gure pertzepzioan. Are gehiago, marketin hori erabili izan dute gabeziak ezkutatzeko. Horrela, jakina da hizkuntza-politikaz esaten ez dena jakiteak egia deseroso batera eramango gaituela, baina jakin beharrekoa aurrera egingo badugu.

Hizkuntza-politika desberdinak aplikatzen dira Euskal Herrian. Frantziako eta Espainiako Estatuak zeinek bere hizkuntza-politika aplikatzen du. Nafarroako Foru Komunitateak eta Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-politika propioak aplikatzen dituzte.

Are gehiago, gaur egun, gutxitutako hizkuntzak berreskuratzekekin batera, oraindik ere hizkuntza nagusien aldeko hizkuntza-politikek indarrean jarraitzen dute. Hor dago, esaterako, gurean indarrean den corpus juridiko osoa, Espainiako Estatuan gaztelaniari eta Frantziakoan frantsesari nagusitasun juridiko erabatekoa aitortzen diena. Izan

ere, egun hizkuntza batzuek duten hegemonia lortzeko mendeetan zehar estatuek indarra eta bortxa erabili bazituzten, egun nahikoa zaie bestelako bitartekoak erabiltzea lortutako hegemonia hori mantentzeko.

Euskal Herrian azken hamarkada hauetan, erdare nagusitasun juridiko osoa aitortzen dieten politikekin batera, euskararen normalizaziorako hizkuntza-politika desberdinak garatu dira; baina, euskararen egungo egoera diglosikoa ikusita, politika horien eraginkortasuna zalantzan jartzeko modukoa da. Izan ere, gaur egun, hiru hamarkadatan zehar euskararen aldeko hizkuntza-politika desberdinak garatu ondoren, euskarak oraindik ez ditu funtzio komunikatibo guztiak betetzen, bere erabilera mugatua da gizarte-alor askotan, hala nola ingurune geografiko batzuetan, eta herritarren gehiengoak oraindik ez daki euskaraz.

Euskararen normalizazioa helburu duten hizkuntza-politikek egoera diglosiko hori gainditzeko neurri estrategikoak hartu beharko lituzkete. Lehenik eta behin, ezinbestekoa da herritarrek euskara ikastea, baina parean ezinbestekoa da ere euskara erabili ahal izateko gizarte-alor edo -eremuak euskalduntzea, eremu publikoak noski, baina bai eta sektore pribatuan ere. Hiru eremu horietan pauso atzeraezinak eman behar dira gutxitutako hizkuntza berreskuratzeko prozesuetan. Herritarrek hizkuntza ikastea ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa, hizkuntza erabiltzeko aukerak eta espazioak eskaini behar zaizkie herritarrei. Euskaraz aritu ahal izateko aukera pertsonal eta sozial horiek biderkatzen ez diren bitartean, ezin da esan euskaldunek euskara gutxi erabiltzen dutenik. Gaur egun, zientifikoki frogaturik dago euskaldunak euskaraz aritzeko aukera duten guztietan euskaraz aritzen direla. Horrelaxe aitortzen da azken inkesta soziolinguistikoan bertan, esate baterako.

Kontseiluak egindako azterketan agertu bezala, egin dena baino gehiago egin zitezkeen, nahiz eta arrazoi edo interes desberdinengatik ez den egin. Bestalde, eman diren pausoak eman direnak baino azkarrago eman zitezkeen, horretan

ere, bestelako helburu eta interesak tarteko. Garatutako politiken ezaugarri nagusia desoreka izan da (geografikoa, funtzionala, sektoriala...) eta ez da ikuspegi orokorreko hizkuntza-politika eraginkorra garatu.

Administrazioen gabezia horien aurrean, euskalgintza eta euskaltzaleak izan dira urte hauetan guztietan normalizazio-prozesuaren eragile nagusiak. Euskalgintza eta euskaltzaleak izan ziren euskarazko irakaskuntza abian jarri zutenak, horiek izan ziren helduen euskalduntze-prozesua abian jarri zutenak eta horiek beroriek izan dira ere sektore pribatua euskalduntzeari ekin ziotenak. Udal batzuek ere lehen pauso horiek lagundu izan dituzte, baina administrazio orokorrak beti atzetik ibili dira euskararen normalizazioari dagokionean. Alor publikoa izan da administrazio orokorren lan-eremu nagusia, eta kasu honetan ere euskalgintzak paper garrantzitsua bete du administrazioaren politika aztertu eta hobetzeko eragiten.

Kontseiluak hizkuntza-politiken azterketaren bidez hori guztia jaso nahi izan du. Are gehiago, Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak administrazio nagusien hizkuntza-politika orokorrak sakon aztertu ondoren atera duen ondorio nagusia zera izan da: hizkuntza-politika horiekin ez da euskara normalizatuko. Hori da euskararen egia deserosoa. Euskal herritar orok ulertu behar duen errealitatea, hain zuzen ere.

Euskaraz bizi nahi dut

Maiatzaren 15ean Kontseiluak Nafarroan euskararen alde inoiz izan den manifestazio handiena antolatu zuen *Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea* lelopean. Euskaraz bizi nahi dugula esatera atera ginen Iruñeko karriketara, euskaraz ez bada, ez delako bizitzea guretzat. Euskaraz bizi nahi dugula esan genuen, eskubidezkoa delako, justiziazkoa, euskararen lurraldeetan betidanik bizi izan delako euskaraz. Are gehiago, euskaraz bizi nahi dugu, euskaraz hitz eginez

etorkizuna eraikitzen ari garelako. Euskaraz bizi nahi dugu; zergatik ez? Ba al dago eskubidezko edota justiziazko arrazoirik euskaraz bizitzea galarazteko? Ez luke egon behar.

Bizi esan genuen maiatzaren 15ean, BIZI letra larriz. Tarketa erabiltzea, aukera urriak baliatzea, egunkarietan euskarazko zer edo zer aurkitzeko orrialdeak arakatzea, euskaraz dioen etiketa bat topatzea ez baita bizitzea, berdintasunez ez, behinik behin. Izan ere, azken urteetan euskaldunok zokoratzea helburu izan duen politika hori aldatu beharra dago. Nafarroako Gobernuak ez duelako gu euskaraz bizitzerik nahi, eta ahal duen guztia egin du, eta egiten ari da, Nafarroan euskaraz bizi ez gaitzen. Eta guk eroso eta duintasunez bizi nahi dugu. Norberaren herrian berezko hizkuntzan bizi nahi izatea oinarrizko eskubidea da. Ez dagoe-lako duintasunez bizitzerik Nafarroako Gobernuak gure hizkuntzaren presentzia bera baztertzen duenean. Nafarroako Gobernuak ikusgai ez izatera zigortu nahi gaitu.

Horrexegatik, hain zuzen ere, euskaraz bizi nahi dugula esan genuen milaka eta milaka herritarrek maiatzaren 15ean Iruñean; harrotasunez atera ginen kalera euskaraz bizitzeko eskubidea dugula erakustera, izan bagarela erakustera, ikus gaitzaten, ikus dezaten... euskaraz bizitzeko prest gauden herritarrak milaka gara.

Pozteko milaka arrazoi izan genuen, parte hartu zuen herritar bakoitza pozteko arrazoi bat izan zen; Nafarroan euskararen alde inoiz egin den manifestaziorik handienetakoa-ren partaide izateak harrotu behar gaituela uste dugu. Gure hizkuntzaren etorkizuna kalean ere jokatzeko delako. Ez dezala pentsa Nafarroako Gobernuak bere ahaleginek arrakasta izango dutenik. Jakin izan dugu azken mende laurdenean ehunka proiektu eraikitzen, geure hizkuntzaren berreskurapenaren suzia eskutik eskura pizturik pasatzen. Maiatzaren 15ean beste behin erakutsi genuen aurrera egiteko prest gaudela; denon artean baldintza berriak sortu behar ditugula eta sortuko ditugula. Euskararen normalizazioa ahalbide-tuko duen agertoki berria eraiki behar dugu, non euskaraz

bizitza aldarri izatetik errealitate bihurtuko den. Geure esku ere badago, eta maiatzaren 15ean jakin izan genuen zein den bide argia euskararen normalizazioaren bidean pauso bat emateko.

Euskararen Unibertsoak pauso bat harago

13 urte luze igaro dira Kontseilua sortu zenetik, eta orduetik hona gauzak asko aldatu dira. Hartara, egungo errealitateari erreparatu behar dio Kontseiluak eragingo badu, hau da, pauso bat harago egin beharko du. *Bai euskarari* ideia zabaldu izan du Kontseiluak eta zalantzarik ez dugu euskararekiko aldeketasuna sustatu duela, baina ez dugu lortu aldeketasun hori konpromiso praktikoetara bideratzea alde dauden guztiengan. Gizartearen gehiengoak konpartitzen du *Bai euskarari* ideia, baina bakoitzari iradokitzen diona desberdina den neurrian, ez digu balio normalizazioa bizkortzeko. Hortaz, mezuak ere egokitu beharraz hausnartu dugu Iruñeko jardunaldietan.

Hortaz, euskarak bizi duen egoera aztertzeko Euskal Herriaren baitan bizi duen egiturazko egoera kontuan hartuta ekin zion Kontseiluak diagnostikoari. Aipatu diagnostikoan: nahikotasunik eza, erasoaldi erdaltzalea, aldaketa beharra... bezalako ideiak izan ziren nagusi. Horrela, etorkizunari begira, Kontseiluari ezinbestekoa zaio euskararen normalizazioaren begirako baldintza juridikoak, sozialak, politikoak eta ekonomikoak zehaztea.

Horrenbestez, etorkizuneko estrategian gure helburuak eta xede-taldeak definitu nahi izan ziren. Batetik, norbanakoen esparruaz hausnartu beharra geratu zen agerian. Hartara, norbanakoak euskaraz bizi nahi izatera bultzatu behar ditugu, eta nahi horrek, sakonekoa izateaz gain, euren eguneroko jardunean eragina izan beharko luke. Horrek eramango baititu euskararen aldeko eragile izatera.

Gune euskaldunak ere xede-taldeen barruan sartzea aztertu da Iruñean. Orain arte gune geografikoak izan dira oina-

rri arnasguneen esparruan, baina gune sozio-funtzionalak ere kontuan hartu beharrekoak direla uste dugu. Gune horietan euskara nagusia eta hegemonikoa da; alegia, euskara *de facto* beharrezko bilakatzen da; alegia, hizkuntza-arauak eta -ohiturak ezartzen ditu. Bertute horien ondorioz, hizkuntzaren berreskurapen-prozesuan izan behar duten lekuaz hausnartu beharra egokia litzateke.

Finean, hizkuntza-normalizazioa prozesu konpartitua da; euskalgintzak, eragile soziopolitikoek, eragile sindikalek, instituzioek, norbanakoek... hartzen dute parte prozesu horretan, eta Kontseiluak horietan guztietan eragiteko tresnak jarri behar ditu abian. Euskararen zehar-lerrotasun izaera mahai gainean jarri behar du Kontseiluak, alegia, gizarte edota politikako edozein eremutan euskararen beharrak gogorarazi behar dizkie.¶



PANTXOA ETCHEGOIN

Iparraldea XXI

Izenburu hori eman diot ene idazlanari, lehenik izen bereko dokumentala ekoiztu baitugu urte honen hastapenean, eta bestalde hemen zerrendatu ditudan Iparraldeko ekin-tzak gaurko sorkuntzaren eta biharko euskal kulturaren harroinak baitira.

Zergatik Euskal kultur erakundeak *Iparraldea XXI* dokumentala egin du? Hegoaldea egiten ditugun ekitaldi ezberdinetan, ohartzen gara ez dugula ongi elkar ezagutzen, eta ezaguturik ere, betiko irudiak ditugula buruan. Maiz, euskarriak eskas ditugula komunikazio aldetik, bereziki gazteei zuzenduak direnak. Lan horren helburua da beraz Hegoaldeko gazteen hunkitzea, baina ez bakarrik.

Bizpahiru pentsaketa egin ondoan, erabaki dugu, betiko klixreak uxatuz, Iparraldeko errealitate bat aurkeztu behar genuela, gazteei lehentasuna emanez. Forma aldetik moderno da, eta funtsean baikorra. Ez da dokumental didaktiko bat, Iparraldeko ezaugarriak aztertzen dituena. Erran neza ke sorkuntza artistikoa dela. Iparraldeko hainbat artistek parte hartu dute lan horretan, hala nola kantariak, bertsolariak, dantzariak, musikariak, surf eskola bateko zuzendariak, nolaz ez Xala pilotariak, horrek baitu egin film guzieren hari nagusia.

Hedapen aldetik, gazteek erabiltzen dituzten Interneteko sare sozialak erabili ditugu oroz gainera. Horri datxikola, hedatuko dugu Hegoaldeko —eta Iparraldeko— kultura guneetan, hala nola mediateketan, gaztetxeetan, festibaletan, gazte aldizkarietan, eta abar. Hurbileko telebistetan ere

agertuko da. Bestalde, filmaren inguruan, mintzaldi batzuk antolatuko ditugu, gazteekin bereziki.

Azpmarratu nahi dut mugaz gaindiko ekoizpena izan dela, eta Gipuzkoako Diputazioaren partaidetza oso garrantzitsua izan dela.

Herri ixilean

Funtsean, Hegoaldearekiko harremanak joriak izan dira 2010. urtean ere. Sail horretan, nahi nuke bereziki aipatu, hamargarren urtekari, Getxo hiriarekin antolatu dugun *Iparra galdu gabe* deituriko kultur astea.

Aurten, sorkuntza artistiko bat asmatu dugu hiri horretan, Jon Cazenave donostiar argazkilari gaztearekin.

Ondorioz, Getxophoto elkartearen zuzendaritzapean, Euskal kultur erakundeak eta Getxoko Udalak *Herri ixilean* deituriko erakusketa berria apailatu dugu.

Getxoko kulturaldian estreinatua izan ondoan urrian, Iparraldean eta Euskal Herritik kanpo aurkeztua izanen da heldu den urte guzian.

Hogeita hamar bat argazkiz osatua den erakusketaren asmoa Cazenave abizenaren jatorrian oinarritzen da. Gaskoia izanik, Ipar Euskal Herrian hedatua da. Jon Cazenave argazkilaria Iparraldean barna ibili da, eta bidaiak horren irudiak, zuri-beltzez, eskaintzen dizkigu.

Bearnon, Saliese herriko Cazenave auzotik abiatuak, Zuberora joan da Junes Cazenave apezka eta euskal idazle jakintsuarengana. Probintzia horren errealitatea eta ohidurak nolazpait bereganaturik, Nafarroa Beherea eta Lapurdiko lurraldeak zeharkatu ditu, abizen bereko pertsona batzuk ezagutuz.

Bakardadean ingurumenarekin hizketan, argazkilariak Iparraldearen bizi-muina nahi izan du hunkitu. Nolabait «Cazenave» arrotz bat euskaldunen lurtean txertatzea eta Euskal Herriaren parte sentitzea lortu du bere barnebidexiletan gaindi.

Sorkuntzaz sorkuntza

Beste hainbat sorkuntza ere izan da Iparraldean 2010. urtean, eta horrek indarberritzen gaitu. Alabaina, euskal kulturari, beste kulturei bezala funtsean, irauteko eta garatzeko, sorkuntzak behar-beharrezkoak zaizkio. Berrikuntzek, nahi-taez, bizitasuna eta indarra ematen baitiote. 2010. urteak ere obra mota ezberdinak eskaini dizkigu. Haietatik bost aipatu-ko dizkizuet.

- *Hau dela, hori dela*. Ipuin antzeztuak, Eleka taldearen es-
kutik. Martxoan estreinatua izan zen Donostiako Koldo Mi-
txelena zentroan eta geroztik bospasei aldiz eman dute Ipa-
rraldean. Eleka taldean bi jokalaririk daude: Kattalin Sallaberry
eta Jokin Irungaray, azken horrek musika ere jotzen duelarik.

Kattalin Sallaberry, antzerkilari gisa, luzaz ari izana da *Xi-
rristi-Mirristi* konpainian eta baita beste talde batzuetan ere.
Gaztetxoan formakuntzak ere egin ditu, eta hain zuzen, ho-
rrela ezagutu zuen Jokin Irungaray. Elkarrekin lan egiten
dute 2006az geroztik ipuinak kontatuz.

Ikusgarri berri hau ere, hemengo eta hango ipuinen mun-
duti abiatzen da antzerkiari lehentasuna emanez. Horreta-
rako Txomin Héguy maisuaren laguntza ukan dute. Erran
daiteke beraz obra hau antzerki bat dela, partikulazki jende
helduek preziatuko dutena. Badu bizitasun eta pindar. Go-
xotasun eta grazia.

- *Sakratua*. Dantza ikusgarria, Hiriburuko Leinua taldeak
emanik. Martxoan estreinatua, Lapurdiko Milafrangako eli-
zan. Koreografoak: Roger Goyheneche eta Bittor Coret. Mu-
sika zuzendaria: Patrick Larralde. Testua: Jean-Louis Davant.
Berrogei bat mutil neska dantzari, eta hamar musikari zuze-
nean.

Dantza ikusgarri honen berezitasuna: eliza barruan iragai-
ten dela, eta beraz, berehala, dantza pikoek halako sakratu
aire bat hartzen dutela, Nafarroa Behereko bospasei herri-
tan, urtean bi aldiz, Bestaberriz eta Otabaz, Sakramentu
Sainduaren ohoretan egiten duten bezala.

Dantza saioa bera aldare zolan ematen dute, publikoa elizaren saihetsetako galerietan jartzen delarik.

Ikusgarria ehorzketa batez hasten da eta Jesu Kristoren gurutzefikatzeaz bukatzen, bitartean bizitzako beste gertakariak —hala nola bataioa, ezkontza eta abar— dantza mota ezberdinez itxuratzen dituztelarik.

Sakratua sorkuntzak merezi du ikusia izatea. 2011n ere oraindik eman beharra dute.

- *Xahakoa* pastoral. Urte bakoitz bezala, uda minean, zuberotarrek pastoral berria aurkezten digute. Aurten, Barkoxe herriaren aldi zen. Eta erran dezakegu «herrikoz herriko» egin dutela. Pastoralaren gaia edo protagonista: *Attuli* (Alexis Etchecopar), Patrick Queheille obraren idazlea eta Jean-Fabien Lechardoy errejenta, hirurak barkoxtarrak, süjeta eta beste arizale guztiak bezala, edo bertan sortuak edo bertan bizi direnak.

Hasteko eta behin, ohore eta goresmen barkoxtarrei, ederki mobilizatu baitira kultur ekitaldi nagusi horren apailatzeko.

Asko ikasi dugu joan den mendean bizi izan zen *Attuli* gizon apalak kultura sailean egin zuenaz, kantu-musika berriak moldatuz bereziki. Harenak dira *Bedatsean*, *Goizean goizik*, *Sor leküa kitatu*, eta oroz gainetik, *Xahakoa*, Niko Etxart *rockero* famatuak Euskal Herri osoan ezagutarazi duena.

Jean-Noël Pinque süjetak bere ahots zoragarriarekin publiko nasaia zoratu du; eta nola ez aipatu Jean-Marie Haritchabalet, Lucien Larraus, eta, funtsean, beste guztiak ere. Aupa barkoxtarrak!

- *Errautsak*. Hiru konpainia elkartu dira sorkuntza honen prestatzeko: Le Petit Théâtre de Pain, Artedrama eta Dejabu. Estreinaldia 2010eko azaroaren 1ean iragan da, Luhusoko Harri xuri areto berrian.

Drama batez hasten den obra. Odei hil da. Hil berria jakin bezain laster, haren sei lagunek elkar topatzen dute. Bi neska eta lau mutil. Aspaldian elkar ikustekoa zuten. Hasieran, saminak joak. Baina Odeiri egiten dioten azken agurra, ne-

gartia izateko partez, besta ertzoa bilakarazten dute, oiesa bezain bitxia.

Sei lagun horiek nor diren? Eta nor zitekeen Odei? «XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan gara. Mundua aldatzear zela sinetsita zeudenengandik sortu ginen. Hautu gaitza, ordea, mundua aldatzea. Musikaz, borrokarako leloz, errepresioz, bestaz eta orotariko drogaz inguratu gintuen gaztaroak».

Antzerkiak, orokorki, erokeria baten itxura dauka. Kanpozt, dena zalaparta. Baina barru-barrutik begiratzuz, badauka erranahi sakonik. Nahitaez gure bizitzaren miraila bilakatzen da.

Inprobisaketatik abiatuz, jokalariek berek asmatu dute istorioa, testuaren idazteko, aldiz, hor zeuzkatela Igor Elortza eta Unai Iturriaga.

Obra gordina, antzezle dohaintsuak, obra bat ez duzuna berehala ahanzten.

- *Osaba Vania - Oncle Vania*. Biarritzeko Théâtre des Chimères konpainiak emana.

Munduan gaindi ezagutua den obra honen taulartzeko, Chimères konpainiak errusiar idazlearen antzerkia bere erara moldatu du, eta ikuskizuna bi hizkuntzatan emana da: frantsesez eta euskaraz. Euskaraz antzeztuak diren zatiak frantsesez agertzen dira pantailan, halaber frantsesez direnak euskaraz. Esperientzia interesgarria. Eta jokalaria, zortzirak onak.

Bertsoz bertso

Duela hogeita hamar urte sortua den Bertsularien Lagunak elkarteak bigarren aldiz antolatu du Bertsulari Xapelketa. Zuberua, Lapurdi eta Nafarroa Behereko hogeik beren izena emana zuten lehiaketarako.

Kanporaketak, Muskildin hasirik, Aiherran eta Saran pasatuz, finalerdiak Luhuson eta Gabadin iragan dira, finalarentzat Donibane Lohizune hautatua zutelarik. Antolaketa

ederki eramana izan da eta saio bakoitzak bildu du jendea, finalak Jai-Alai frontoia kokorreraino betetzen zuela. Azpimarragarria dena: bertsolariak gazteak izanez, gazteria eder-
rra erakarri dutela, bertsolaritzari eta beraz euskal kulturari freskotasuna emanez.

Saio guztiak segitu dituztenen arabera, gaiak, orokorki, interesgarriak ziren, eta bertsolariak beren dohainen arabera erantzun diete.

Aurtengo txapela, duela bi urte bezala, buru beraren gainean pausatu da. Buru bat ezinago argia, zinez jantzia. Amets Arzallus baitugu jadanik, bere 27 urterekin, bertsolari handi-handia. Eta oraindik emanen eta emanen dizkigunak, ikusiko. Eta guk, pozez, beti preziatuko.

Badauzka ere, bere aldean, bertsolari gazte bikainak. Hala nola Odei Barroso, bigarren atera dena, Eneritz Zabaleta, Luhuson arras ona izan zena, eta nola ez aipatu Sustrai Collina, bertsolari fina. Eta beste guztiak ere jakin bezate, haien-
tzat daukagun mirespena.

Bertsularien Lagunak elkarteak, hogeita hamar urte? Beste hainbat eta hainbat urtez segi dezala orain arte egin duen lan baliosa. Eta onar bitza gure eskerrik zintzoenak.

Amaitzeko, derragun Euskal kultur erakundeak ere hogeita urte ospatzen dituela aurtun. Hogeita urte, guti eta anitz da. Erauntsien artetik, euskal kulturaren alde lan egiten irautea, ez baita gaizki!

Baina atzoko esperientzia guztiak aholkubide izanez, Euskal kultur erakundeak geroa aurreikusten jakin behar du. Xede horrekin, 2011n «hogeita» deituriko epe luzerako ekintza labela abiatuko du; horren helburua gazteek sorturiko ekimen berritzaileen sostengatzea izanen da, bai eta euskal kultura modu berezi batez berenganatzeko parada emanen dieten tresnak asmatzea.

Berrikuntza gazteen ekintzen bidez gauzatuko da, horien sorkuntzek gainbalioa emanen baitiote egungo eta biharko euskal kulturari.¶



PATXI GAZTELUMENDI

Euskaratik eta euskaraz

Zelan esan *waka waka* euskaraz?

Ezinezkoa litzateke 2010. urteari begirada bota, eta futbolaren ingurumari guztia ez aipatzea. Ahalegina egingo dute batzuek, beharbada. Baina, nik dakidala behintzat, azken 30 urteotako kultur haize erauntsi bufada kolperik latzena jaso dugu dudarik gabe, ideien eta mezuen transmisio horretan, munduak Espainiaren kolpea jasan du. Futbola aitzakia, asko maite dudan kolore batek koloreak atera dizkio ez soilik gure herriari, munduari baino.

Hego Afrikara begira dagoen herri batekoa nauzue, *Invictus* filma behin baino gehiagotan ikusi duen etxekoa, John Carlin kazetari ona, idazle aparta eta zinemara adaptatzeko moduko egilea badela pentsatzen duenetakoa. Hego Afrika izan da aurten munduko gune. Eta euskaldunak, kontatzen baino ez gara egon han, ikusteko; baina gureak han, momentuz bederen, ez du kontatzen.

Eta handik entzunarazi diguten kantuak ez du hango herriarren mintzorik baliatzen; hango bi berba hartu, eta toke etnikoa eman diote globalizazioaren garaiko kantagintzari. Eta gurean, ume guztiak dantzan jarri ditu kantuak, baita herri euskalduneneko, familia euskaltzaleeneko seme-alabak ere. Plazan ikusi dut nik hori, nire herrian bertan.

Waka waka kantuaren egileak urtean bertan bete du berzozaleek betetzen duten BEC hori. Eta euskarazko hedabideek airean eraman dute ekitaldia bera. Itxaron ilaretan egon diren zaleak elkarrizketatu dizkigute, pantaila eta informazio uhinetatik pasarazi... waka waka ari gara oraindik.

Euskara sarean josi behar duten Azkue Fundaziokoek ere, hori dute kezka, komunikazio estrategiaren ardatz. Nola waka waka egin. Zelan izan jator, waka waka sarrerak banatzen. Euskara, sarea josteko, esango dizute, milioiak eta milioiak erakunde publikoetatik, ezelango justifikaziorik gabe jasotzen dituen fundaziotik. Waka waka egin digute aurpegi-gira, iseka.

Alegia, gorriak pasatu ditugula aurten. Kultura ez den kultura inposatu digute, inposatu dugu. Eta koloreak atera ondoren, oraindik lotsagorrituta gaudela. Urtea amaitu, eta ez oroitzeko moduan. Auzo-lotsa, himnoak, partidarik ikusienak, oihurik bortitzenak, ordurik luzeenak, udarik beroena izan da Euskal Herrian, waka waka, Hegoan zen albiste, hegoaldekoagoen menpe gauzkate oraindik hemen. Afrika ez gara oraindik. Nahi genukeen arren. Mandelatu gabe ditugu oraindik hemengoak.

libre!

Hala ere, urteari jarriko dizkiogu beste kolore eta argazki batzuk. Beste une batzuk gogoetara ekartzeko moduan gaudete. Aro berri baten atarian jartzen gintuen Maialen Lujanbioren agur batekin hasi eta amaitu genuen iazko jarduna, eta urte osoan haren galbahetik igaro dugu gure jarduna. Euskal Herrian, euskaratik eta euskaraz sortu, ekoiztu, zabaldu, landu, ikusi, entzun, dastatu eta gozatu duguna, garrantzitsua goa izango delakoan. Ez kopurutan beharbada, baina ekina-ren podasuz, bat eta bakoitza; uneak, pertsonak, emaitzak, txaloak eta pozak dira gogoan hartu beharrekoak. Dira, izan ere, aurrera egiten ari garelako zantzuak ematen dituztenak.

20 urte behar lituzke aurten *Euskaldunon Egunkariak*. Eta hala aipatu digute efemerideek. Baina otsailaren 20 beltz haren osteko ibilbidean —errepresioa, defentsa, sostengua, salaketa, indar erakustaldia, epaitegiak, plazak, bilketak, manifestazioak eta adierazpenak—, Euskal Herriak libre esan, eta Audentzia Nazionalean libre entzun dute. Libre egoteko

arrazoiak mahai gainean jarri, juridikoak, ekonomikoak, kulturalak, informatiboak... eta libre izatea sententzia batean idatzi dena lortu dugu. Abokatuek, akusatuek, lekukoek, proiektua sustengatu dutenek eta libre! ozen aldarrikatu genuen guztiek. Eta hori, gurean bederen, ez da urtero gertatzen. Baina hemendik aurrera, urtero beharko dugu gogoratu, une oro pentsatu posible dela. Arrazoa baduela herri honek, eta arrazoibideak injustiziarri aurre egin diezaiokeela. Baita euskaratik eta euskaraz sortzen diren proiektu eta egitasmoetan ere.

Literaturia

Asko idatzi da honetaz eta hartaz. Asko idatzi dugu guk gurek ere. Eta irakurri ere beharbada. Eta gure kultur transmisioan, letra inprimatuek badute garrantzia izateko moduan ere. Jalgi aditz baino gehiago da euskaldunontzat. Plaza eta mundua ez dira berba ederrak bakarrik. Adierazteko eta bizitzeko moduak ere badira. Etxeparek kartzelan idatzitako berbek kapitulu luzeak, atseginak, debekatuak, gozatuak, landuak eta ilunak, josiak eta joriak izan dituzte gerora ere. Ez da eten. Euskaraz sortzen jarraitzen du oraindik gure literatur sorkuntzak. Azpian dago baina ez da menpeko. Eta literaturak baditu plazak. Baditu txokoak. Baditu irakurle eta editoreak, sortzaile eta zaleak, baditu lagunak.

Gutxi-asiko diren, ez gara tematuko. Gehiago izateko ahaleginetan ari garela aitortu beharko dugu. Behetik ari gara lanean, ia beti. Eta horrela jarraitu beharko dugu. Plazan, liburu dendan, liburutegian, editorialean, karpapean, edo sutondoan. Milaka irakurle eta hamaika gehiago izango baditugu.

EHZ festibala, herri bat zuzenean

Idatzi kantatu dantzatu eta gozatu egiten duen herria da gurea. Horrela ikusten ote gaituzte? Sarritan ez dugu beste irudirik ematen etxetik. Sukaldariak, bertsolariak, dantza-

riak, abeslariak... baditugu. Bagara. Eta idatzi kantatu eta dantzatzeko, plaza ugari ditugu. Herri guztietan. Taulatu gainerakoaz aritzeko, baina, kontzertu handien mapan ere bada gure herria. Banketxe, instituzio publiko, ekimen ekonomiko finantziario handiko mugimendua sorrarazi du rockarollak azken urteotan. Euskal Herrian ere. Krisiari espekulazioarekin erantzuten zaio oraindik ere. Sarrera garestienek desira gehiago sortzen dute ilara luzeetan emandako gaupasen ostean. Albiste dira ilarak, eta ez sorkuntza. Baina eguraldiari buruz telebista minutu gehien ematen duen kulturakoak izanda, kulturari zer giro dagoen aztertzea meteorologia baizik ez da.

BBK live, AC/DC, Bruce Springsteen, U2, Shakira edo ezin handiagoak diren izarren zeru bilakatu da gure lur eremu txiki hau. Banketxeetatik kudeatzen da, gero, kultura guztia. Kontsumogai da. Sarrerak erosi, sarrerak saldu, sarrerak kobratu, sarreraren ilare buruz berba egin, ederra sartu digute, duda barik.

Bada hala ere beste eredurik. Posible da. Posible egiten du hori hainbat euskaldunek urtez urte. Duela hamabost, Arrosan (Behe Nafarroa) abiatu zelarik Euskal Herria Zuzenean festibala, urtez urte hobetuz eta txukunduz joan da antolaketa bezala, eskaintza kulturala ere. Ostean Idauze mendin (Zuberoa) egin zituen urte batzuk, eta zailtasunei aurre eginez ere, kultur sorkuntza handien lekuko izan ziren bertako pentzeak. Azken biak Heletan igarota, Manu Chao eta askoren oihartzunak, zein azken euri erauntsiek, erakutsi dute handia dela EHZren antolakuntza, indarra eta go-goa. Alde guztietako erasoak azalean jasan arren —ekonomikoak, polizialak, eguraldiarenak— euskarari garrantzi handiena ematen dion Euskal Herriko jaialdia duzu Euskal Herria Zuzenean. Gure musikariek, gure musikazaleek, gure mapan aurkitu dezaketen hiru egunetako egitarau aberatsa. Egon denak ez du ukatuko. Pantaila aurrean hitzok jotzen ditudan une berean, ondoan dakusat herri bat zuzenean esaten duen afixa edo edalontzia, festibalean euskaraz alda-

rrikatzen duena, Euskal Herriaren mapa eta ikurra inprimatua duena. Gure sosak, zelan ez, Heletan daude, hurrengo arte. Han nahi dugu idatzi kantatu dantzatu eta gozatu. Heletan, Iduzen, Arrosan. Euskal Herrian.

Jai ereduak ezbaian

Dantzatu kantatu egiten dugu jaietan ere. Eta jaia da gure kultura. Jaiegunek zehazten dute gure egutegia, lanekoek baino gehiago. *Guretzat berdin dira astea eta jaia* esaten zuten Oskorrikoek aspaldi, eta guk ere *dena bihurtzen dugu kantatzeko gaia*.

Gutxi idatziko da jaiaren bueltan, kultur analisi batean. Zoritxarrez. Eta gurean, jaia izan da kulturaren erakusle. Plaza. Pentsatu bertsoa, kantua, dantza, pintura, hitza... jaiarik gabe gurean. Eta jaia bera, herri bezala ustezko demokratizazio saiakera honetan, galduz joan den esparrutzat nahi zuten batzuek, agintariak gehienetan.

Aurten ere, hiriburuetan bezala, herrietan ere jai ereduak talka egin dute. Parte-hartzailea eta dekretu bidezkoa, euskalduna eta tolerantea, herritarra eta agintariena. Euskalduna eta inposatua. Eta jaietako antolatzaileak, jaietako protagonistak, jaietako zapiak batzen hasi dira. Kolore asko, kantu asko, herri asko, egun asko, baina batzeko arrazoi gehiago. Eta jaia ez da eten, eta Iruñeko pankarta beltzek, Bilboko egun osoko itzalak, Donostiako piratek edo Baionako euskaltzaleenen eskaerek bat egiten dute, herri txiki askotako aldarrikapenekin ere.

Eta Euskal Herrian, jaiak kulturatik asko du. Kulturak plaza behar badu, urte osoan hori jaiak eskaintzen dio. Eta jaia bera ere, euskaratik eta euskaraz aztertuko badugu, gure pentsamenduaren ildoetan ere, aztertu beharrekoa litzateke. Ondorioak atera, eta horren gainean jardun. Izan ere, gurean urtea hasten denetik, hilero eta astero badugu zer ospatu. Euskararen aldeko, kulturen arteko, herriko, auzoko eta etxeko jaiak ere baditugu. Kalendarioan gorritz markatu-

takoak, eta agendan azpimarratutakoak. Eta udan, ezbairik gabe egunero dago jai, gura duenarentzat. Baina udagoienak, eta baita neguak ere, baditu bereak, eta horrek kulturaren neurria eta izaera ere adierazten du. Dantzatu, kantatu, gozatu.

Durangon euskara nagusi, behingoz

Eta kultura bera bilakatzen dugu jai. Zer da bestela Durango? Azoka bat? Zer izan dira ba azokak gurean? Berdin Gernikan edo Donibane Garazin astelehenetan. Ordizian asteazkenetan. Edo feriak asteburuetan. Kulturarena da ordea Durangokoa. Gazta, ortuariak, abereak eskaintzen dira plazan. Disko eta liburuak, sorkuntza kulturala abenduko ferian.

ekoizpenaz berba egin genezake, eta hizkuntzaz. Eta ko-mertzioaz. Eta saltzeaz. Baina gaur, hizkuntzaz baino ez gara arituko. Nago ni, aurten euskara atera dugula garaile azokan. Euskarari buruzkoak ez ezik, euskaraz sortutakoek piztu dute arreta gehien, interes handien, eta datuak oraindik gordetzen diren arren, salmentan onenak ere, bertan ikusitakoagatik.

Orain arte ere, euskarazko kulturgintzan gogoeta interesgarriak eragin izan dituzten batzuek —Koldo Izagirre, Joseba Sarrionandia edota Jon Sarasua kasu— aurten hizkuntza eta herriaren arteko harreman-gatazka gogoeta bultzatzeko saiakera egin dute. Nork beretik badu bere ekarria, bere eskaintza, baina aurtengoan hizkuntzaren gaineko kezka —eta ez filologikoa, zorionez— gailendu da Anbotopeko plazan.

Hiru aportazio gure plaza horretan, hiru so egite. Hiru gogoeta, eta ez bakarrak.

Baina jendearen artean ere, fikzioak baino, gogoeta horrek eragin du harrerarik onena. Eta hori ere, garrantzitsua da, *best seller* eta arinkeria literarioa, globalean bezala, lokalean ere nagusitzen den aro honetan. Euskaratik eta euskaraz ari garela pentsatzen orain ere, zorionez. Pentsamendua ari garela lantzen; kritikoa, zorrotza, eguneratua, modernoa,

garaikidea. Subordinaziorik gabeko hizkuntza aldarrikatzen dugun aldiro, ari gara hizkuntzaren alde jokatzeko. Menpekotasunaren kontra. Eta hori, lagunok, XXI. mendeko lehen hamarkada hau igaro, eta esan ahal izatea, belaunaldi oso batentzat, satisfakziorako mezu ere bada. Ez dugu guztia ondo egin orain arte, baina bagara oraindik. Badaukagu aurrrera egiteko motiborik, arrazoirik, gogorik eta indarrik.

Ahotseneak ere hori guztia biderkatu egin du. Ahotsa eman die, mikrofona, euskarazko sortzaileei. Lau egunez, ehunka lagun pasatu da bertatik. Diskoak aurkezten, liburuaren gainean berba egiten. Musika jendaurrean jotzen. Eta euskarak arnasa hartu du. Erosketetarako ere baliagarri suertatu da, jesartzea, egotea, entzutea, aditzea. Eta besteren baten ere ulertu du aditutakoa. Izan da ordua. Euskarak arnasa behar duelako. Pentsatzea. Hausnartzea. Altabozak behar dituzte, guneak. Eta azoka aldameneko karpak txiki ondo argiztatuz eskaini du hori. Eta handik igaro den orok ikusi du, bizi izan du hori. Sortzaileen lanak, langileen nekeak, euskararen arnasak badaki hori. Jakiten jarraitu beharko du, dudu barik. Eta berdin aldamenetako zegoen Plateruenan ere. Edo haur literatura txokoa. Edo eskulangintzaren gunea.

Ez hori bakarrik. Musikaren esparruan ere, bazterreko gurek berotu dute gehien sutondora arrimatu dena. Zea Mays, Gose edota Txinaurriak proiektuaren inguruan batutako rock mugimenduko talde horiek guztiak... poza adierazten dute gurean. Stand bakarreko sortzaile/argitaldarien garaia hasi da gurean. Abian da. Txikitik egiten dugu handi gure sorkuntza. Euskaratik, ekoizpen autokudeatutik, kulturegintza berri bat ari da garatzen. Eredu berriak dira, horizontalagoak, parte-hartzaileak, ez ekonomizistak, baizik eta sorkuntzari lotuak, sorkuntza bultzatzeko. Parametro berriak ezartzen dizkio industriaren krisiaren negar etengabea. Malkoak lehortu, eta amorru horretatik sortzen den kantua da orain entzuten duguna. Binilo zaharrari hautsak kendu, mahai gainean jarri eta ondoan den euskarri modernoenari ere eskaintza egiten diona.

Kafe Antzokiak 15 urte

Eta euskal kulturgintzak proiektuak errotu eta garatu ditu belaunaldiz belaunaldi. Musika, sorkuntza, kantua, dantza, sukaldaritza, hitza, letrak, literatura, doinuak, ikustekoak, zinema, antzerkia, artea, argazkigintza, arkitektura, estetika, sarea, estiloa, moda, ahotsa... landu da gurean. Lantzen da.

Eta euskarak hiriburuak ditu sorkuntza gunee bano gehiago, erakusleku. Erakusleho dira hiriak, mundura. Itsasora begira dituen hiru hiriburuak izango dira munduari begira daudenak. Eskaintzeko prest. Portu dira. Barrukoek mundutarrak jasoko dituzte agian gehiago. Ibilian. Erromes.

Bilbo da gure hiria. New York txiki bat, Euskal Herrian. Batzuek guztiz newyorktu dute, apropos. Beste batzuek hangunderground eszena berreskuratu gura lukete. Mila kulturen topaleku, irlarena edo sagarrarena egiten du, zelan begiratu da kontua.

Eta euskarak Bilbo behar duen moduan, Bilbok ere euskararen arnasa behar du. Biziko bada, XXI. mendeko kutsadura berriei aurre egingo badie. Globalizazioaren industriak beste kutsadura bat sortzen du gure hiriburuan. Altzairua sortzen genuen lehen, titanioak gehiago kaltetzen gaitu ordea, nahiz eta distirak begietatik ez ikustea dakarren. Bote-re finantzieroen morroi den kultura kontsumistak ez gaitu asetzen ahal. Handia nahi dute Bilbo. Baina badakigu txikia dela. Irla bat, sagar bat. Botxo bat, besterik ez.

Eta Bilbo horretan, Kafe Antzokia asmatu zen. Asmatu zигuten. Eta asmapen ederra izan zen, ez da amets bat, baina astero daukagu zer ikusi entzun dastatu gozatu eta egin Bilbon. *Aikor Bilbon!* esango dugu, zer egin, nora joan, zer jan pentsatuko dugunean. Euskaratik euskaraz ari gara orain ere. Eta hedatu da, zabaldu da, erreferentzia bilakatu da. Baina Euskal Herria ez da Bilbo. Edozein herritan, edozein modutan, eta edozein modutara... ezin da kafe antzokirik eraiki eta mantendu ahal. Eta oker arituko ginateke, modu itsuan hala pentsatuko bagenu, hemendik aurrera euskararen arna-

sa, milaka metro karratu, kamarero profesionalak, agenda kultural aberatsaren bila asmorik onenarekin jokatu nahi izanagatik. Euskal Herria ez da Bilbo. Eta edonon ezin deza-kegu euskararen irla bat, sagar bat irudikatu. Baldintzak be- har dira horretarako. Baldintzak behar dira edozertarako. Eta kopia txarrek bertsio originalari ere egiten diote kalte.

Baina Bilboko Kafe Antzokiak irau du, zailtasunak zail- tasun. Eta jaiaren eredu bilakatu da gurean, nazioartean ispilu eta enbaxada, bertokoen abegi, etorri berrientzako begiko, dantzarako apropos, gogoetarako gune, jan-edane- tarako zein ordu luzeetako kalaka saioetarako itzel. Kultura- ren erreferentzia. Aurrera jarraitzeko ideia bat. Beste bat. Euskaratik eta euskaraz.

200.000 euskal herritar, herri euskaldunetan

Bilbo, baina, ez dugu inoiz UEMAKo mapan kausituko. Bere alkateek ez dute inoiz euskararen asmorik, mihirik eduki. Ez dute aurrerantzean ere izango. Ez dugu gure be- launaldikook %70 euskaldunez osatua duen hiribururik ikusiko, entzungo, biziko. Baina hala ere maite dugu Bilbo. Euskaldunak gara Bilbon. Euskara bizi dugu Bilbon. Eus- kaltegieta, kalean, batzarretan, kontzertuetan, emanaldie- tan, tabernetan, eskola eta ikastoletan, elkarteetan... bilbotar ez garen euskaldun askoren hiriburua ere bada Bilbo. Egu- nerokotasunean.

Eta Bilbok, %70 euskaldun hori eduki ez arren, lor dezake UEMAKo herri guztiek osatzen duten populazio kopuru hori bera. 200.000 euskaldun bizi da euskaraz, %70etik go- ra, Euskal Herriko herri elebakarretan. Udalerrri Euskaldu- nen Mankomunitatea da UEMA, euskarazko mapa bat gu- re herriarentzat. GPSak adierazi ezin duen sentsazio bat, gure ibilbidean. Lorpena, iraupena, garapena eta ausardia biltzen ditu bere baitan UEMAK. Euskal herri euskaldunak dira, herritar euskaldunak. Normalizazioaren eremu. Hiz- kuntz trasmisioaren ikur. Bilbo txiki bat, 50 herri txikiagoen

ahaleginean. Baina herriok handi egiten dute gurea. Euskara. Euskal Herria. Eta amets horretan joan zitzaigun Iñaki Arregi adiskidea ere. UEMA eta euskalgintzari emana. Urteetan. Eta isil-isilik. Erreka bat.

Xabier Leteren negu hurbila

Jario handiagokoa izan dugu Xabier Lete. Eta hori ere isildu zaigu. Apurka-apurka. Letragile aparta, XX. mendeko poeta, kantugilea. Instituzioetako arduradunentzat, demokraziaren izenean esanda, gauza aparta izan omen da gainera. Guretzat, sortzaile bat. Erreferentzia handi bat, egon denean egon dela. Egindakoak daude hemen. Gogoratutakoak. Eta nire herrian bizi diren argentinarren gogoak entzuten ditut, Urepeleko artzainaz berba egiteko parada ematen didalako, edo ukazioaren indarra hartzen dugulako abiapuntu guk ere. Laboa joan zen moduan, isildu da Leteren ahotza ere. Baina sortuko dira berriak, adaska gazteak... eta hori dugu zorion. Arrazoia izan dutela horretan. Indar egin dutelako. Saiatu direlako. Sortu dutelako, zer eta euskaratik eta euskaraz.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan

Ez dauka arrazoi txikerra hori idatzi duenak. Joan dira, baina irauten dugu. Ari gara. Oraina geroa. Bihar, bihararain. Atzokoa ikasiz, gaurkoan jardun.

Ez nau larritzen azken orduan
arnasa galdu beharrak
bide xumea hesituarren
amildegiaren larrak,
ardo berriak onduko ditu
mahastietan aihen zaharrak
gure oraina arrazoiturik
beste batzuren biharrak.

Kulturaren planak, kultur kezka

Eta guk sortzaileak agurtzen ditugun moduan, batzuetan pentsatzen dugu, amesgaiztotzen zaigu, sorkuntza bera ere ahituko zaigula. Eta beldur izaten gara. Globalizazioa, merkaturia, hizkuntza handien jarioak, gobernatzen gaituztenen asmoak, kultura kudeatzen dutenen gaitasun urria, perspektiba falta, ezagutzaren kamutsa, indarrak batzeko borondate eskasa... faktore asko dira. Baina, ikusten dituzu guztiak, kulturaren planei buruz, hiritarren akordioei buruz berba egiten... ahoa bete hortz, ematen duela jan egin behar gaituztela. Euskara zelan ez zabaldu, zelan ez hedatu, zelan ez bizkortu dutela helburu. Unibertsalaren izenean, espainolaren aitzakian, frantsesaren eskubidean. Legearen ezpatarekin ari zaizkigu. Ditutzen arma guztiakin. Eta gu hemen, bidean galduak. Sarri. Askotan. Euskaratik eta euskaraz.

Euskal kulturgintza ez da marka bat, jarduteko modu bat baizik. Eta iparrorratza behar luke, une hauetan. Lanbrotuta ikusten dira gure bazterrak. Eta efemerideetara mugatzen da sarritan gure jarduna.

Eta jarduteko ordua ere iritsi da. Nork bereari begiratu eta ekin baino, batera aritzeko tenorea da hau. Kulturak batu beharra dauka, euskarak bezala. XXI. mendeko bigarren hamarkada honetan, Arantzazuak behar ditugu, batuaren eztabaidak kulturgintza, hatxeak jarri beharko dizkiogu herriari eta hizkuntzari. Harresi bat inperioaren, inperioen zapalketari. Kultur kezka bat antolatu, indartu, garatu behar dugu. Kulturgile, kulturzale, euskaldun, euskaltzale, batu, eta jardun.

Panorama politikotik landa, gure herria ez dadin irlandar-tu. Begira diezaiozun Finlandiari. Hizkuntzari, lurraldeari, garapenari, kulturari. Ekonomiari. Iparrorratzak iparralderara markatzen du, iparralderago, goiko landa baino. Eskozia edo Irlanda izan daitezke eredu bakegintzan edo autodeterminazio eskubideen gauzapenean, onenean. Baina gure herriak gorago begiratu beharra dauka, izango bada, iraungo badu. Euskaratik eta euskaraz. Eta libre.¶



ANDER ITURRIOTZ

Hizkuntza, nazioa, literatura

Nazioaren oinarrian hizkuntza ikusten duen logika nahikoa unibertetsala da. Hala izan da filosofia politikoan eta, batez ere, hala izan da praxi historikoan. European estatu nagusitu bilakatu diren nazioetara begiratzea besterik ez dago objektibotasun horretaz ohartzeko. Oso urrutira joan beharrik ez daukagu euskaldunok. Estatu jakobino hutsa den Frantzia, ez dago frantsesa besterik, euskara, bretoiera, katalana, okzitania edo korsikera ez dira existitzen. Autonomien Estatu antolatua zuen Espainian bertan —nazio menperatuaren arazoa harmonizatu behar zen, konpondu gabe uzteko, hain zuzen—, *de facto*, espainola besterik ez da onartzen, eta elebitasun diglosiko bat Galizian, Herrialde Katalanetan eta Euskal Herriaren parte batean, Nafarroako hegoaldea salbuesten baita. Beste galaxia batean, Suitza jar genezake konparazio baterako, plurinazionaltasuna hizkuntza-komunitateetatik eraikitzen baita, eta han ere, hizkuntza gatazkak, hegemonia gatazkak, oso gordinak dira, elebidunak izan arren, hizkuntza nagusitu bat duten kantoietan.

Nortasun politikoa ukatuta eta ezbaian daukagun herrietan, hizkuntzaren eta nazioaren arteko harreman hori lausotu egiten da, burujabeak ez garenez —aukerak askatasunez egin ahal izatea, erabakiak kanpoko baldintzarik gabe hartu ahal izatea baino gehiago da burujabetasuna— definitzio operazionalak emateko gaitasunik ez daukagulako, besteak beste.

Urrats bat gehiago emanik, ondorengo orrialdeetan gartuko dudan tesiari lotzeko, hizkuntzaren, nazioaren eta li-

teraturaren arteko harremana logika politiko berean kokatu beharko litzateke. Ez al da literatura espainola Espainian espainolez egiten den literatura? Espainiatik kanpo espainolez egiten den literatura literatura espainolaren zerrendetan sartzen duenik ere bada. Frantzian, berdin. Frantsez edo espainolez idazten duen idazleak —muturreko kasuenean ere, alegia, sorkuntza gertakari apolitiko eta ezin errotuzko ikusten duenaren kasuan ere— ez du inoiz zalantzan jarriko bere literaturaren naziotasuna. Aitzitik, kontsideratzen al dituzte egiazki Espainian eta Frantzian literatura nazionaltzat, katalanez eta euskaraz egiten diren literaturak? Ez al dituzte mespretxatzen eta gutxitzen, hizkuntzak bezala, literatura nazional horiek guztiak? Erantzuna oso erraza da Frantziaren kasuan. Espainiaren kasuan, berriz, diagnostiko bera egiteko batere erreparorik ez nuke izango —Espainiako Sari Nazionalak, esaterako, egiten ez dena egiten dela ikustarazteko amarru sinboliko hutsak dira—.

Baina kultura gutxituei dagokienez, lausotasun kontzeptuala areagotu besterik ez da egiten hizkuntza, nazioa eta literatura elkarrekin esplikatzen nahi direnean. Nazio gutxituen errealitateak, zertzeladez, zehaztasunez, konplexutasunez, doitasun beharrez, tentuz, arduraz eta erlatibotasunez betetzen ditu gertakari kulturalak, ezintasunez, esan dezadan. Hizkuntza, nazioa eta literatura egitura soziopolitiko ezorekatu berean txertatu nahi dituzunean, begirada gaiztoak jasotzen dituzu, sutu egiten zaizkizu batzuk, eta, salbuespenik gabe, sorkuntza pertsonal eta gertakari autonomotzat defendatzen dizute literatura, su desmasiatu batekin, normalean —nartzisismo puntu nabarmen batekin, askotan—.

Baina errealitatea setatia izaten da. Nazio gutxituetan, Gazlizian bezala Kurdistanen, klabe komunak aurkituko ditute batek, hizkuntzaren, nazioaren eta literaturaren artean uzta-dura hautsezina aurkituko du batek zertxobait arakatu orduko.

Euskal Herritik Galiziara

Iritsi berriak gara, hain zuzen, A Coruña hiri argitsutik, bertan ospatu baita aurten Galeusca, alegia, galegoz, katalanez eta euskaraz diharduten idazleen Biltzarra.

Federazio bilakatu ginenean goiburutzat hartu genuena betetzera joan gara oraingoan, hau da, gai sektorialak eta profesionalak eztabaidatzera. Eta horrela izan da, azken batean. Bertan aurkeztu diren ponentzia gehienak, esaterako, hipertestuarekin eta digitalizazioarekin egon baitira harremanean. *Literatura industria kulturalaren hornitzaile: literatura eta ikus-entzunezkoak* izeneko ponentzia aurkeztu zuen Harkaitz Canok eta *Bizitza eta literatura errealitate bera* izeneko Nikolas Zimarrok; Urtzi Urrutikoetxeak, bestalde, literatura bidaiariari lotua, *Etxeko urrea* izeneko ponentzia irakurri zuen. Eztabaida mamitsu eta interesgarriak egon ziren jardunaldietan barrena: literaturaren geroa eta formatu berrietara egokitu beharra —doiago adieraztearren, formatu berrietan ere garatu beharra— guztien ahotan egon da.

Baina beste kezka bat ere bazezilen Galizian, gai teknikoan azpitik, latentzia lehertarazi nahi zuena: Espainiako eskuinta, Alderdi Popularra, Xuntako Gobernuan dagoenetik, itozten ari da galegozko kultura. Alderdi horretako ordezkari berriak hirigunetan haziak dira eta erabat mespretxatzen dute herri kultura, kultura horren baitan, noski, hizkuntza, galegoa. Hain da basatia Galiziako hizkuntzari eragiten dioten gutxiespena —normalizazioari begira, eskoletan egin den aurrerapena atzera bidean jarri dute, jadanik—, idazle galegistak begi onez ikusten hasi direla Fraga bezalako lehendakari frankista batek bultzatu zuen politika kulturala. Hark, bederen, galegismoa baitzeraman, esan dezagun, geneetan: bere gobernukideei, esaterako, ez omen zien uzten espainolez mintzatzen.

Herralde Katalanetatik ere halako egoera bat baieztatu da, bereziki, Valentzian —aspaldiko kontua dena, bestalde, gogoratu behar baita, katalanaren kontra, kultura katalana

bizi zuten sortzaileen kontra atentatu terroristak burutu zituela eskuin mutur espainolak, erraztasun handiegiz, trantsizioa deitu den sasoi ilun hartan—. Balear uharteetan, halaber, kezka piztuta dabilta, Galizian bezalaxe, kulturalki eta linguistikoki Madrilen bizi den belaunaldi berri batek hartuko ote duen eskuin popularraren buruzagitza.

Autogorrotoaren fenomeno ezaguna da gurean ere, bereziki, Nafarroan. EAEn bertan, PPK babesten duen PSE-EE-ren gobernuarekin, argi gorriak piztu zaizkigula adierazi nien, nire aldetik.

Literatura nazional ezberdinen egoeraren analisi horien ardatzean, halako bulkada zentralista bat sumatu da —eremu politikoa nabarmena dena, bestalde—; eta, ondorioz, esan dugunez, gai partzialak eta profesionalak landu behar zituen Galeuscak, adierazpen ofizial gogor bat egin zuen, Espainiako Estatu eta Konstituzioa salatuz, hain zuzen, Galiziako prentsan oihartzun handia izan zuena.

Gai sektorial eta profesionalak normaltasuna behar dute garatuko badira. Eta ez da gure kasua.

Galiziatik euskal literaturara

Itzuli gara Galiziatik eta, egun batzuetara, han gertatutakoaz galdetu dit, *Berria* egunkaritik, Juan Luis Zabalak: sinatu genuen adierazpenaz eta Euskal Idazleen Elkartearen egoeraz jakin nahi zuen. Baina, oro har, Espainiako ezkerria euskal gobernura iritsi denetik, Euskal Herrian bizi dugun kultura-giroaz luzatu gara.

Sozialisten politika kulturalaren inguruabarra aztertu baino lehen, txikiak esplikatuz dizkiot Zabalari, alegia, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak EIEri eragin dion diru laguntzen murrizketari buruz hasi gara —2010-2011 ikasturterako, 190.000 eurotik 85.000 eurora jaitsi baita esleitu zaigun kopurua—, eta, halaber, murrizketa horrek izan dituen ondorio kezagarriak buruz: esate baterako, *Idazleak Ikastetxeetan* programaren barruan egiten ziren saioetatik erdiak

galduko dira; zenbakiz adieraztearren, aurten 400 saio baino gehiago egin baditugu, datorren urtean 200 besterik ezin izango ditugu egin. Euskal literatura sozializatzea helburutzat duen programa hori oso arrakastatsua izan da, oso harrera ona izan du ikastetxeetan eta eskola-komunitateetan, kalitatea aitortu zaio aurreko urteetan.

Eta, gainera, saioen erdiak burutu ahal izateko, bertan behera utzi behar izan ditugu beste programa batzuk, *Literatur bideak* izenekoa, esaterako: ezinbestekoa izan zaigu lehentasunak jartzea.

Zentroz zentro ibilki, saio horiek egiten dituzten idazlee-kin ere bildu gara eta, hasiera batean, prest agertu dira beren lanaren prezioa merkatzeko, saio gehiago egite aldera. Baina berehala konturatu gara ez zela erabaki zuzena politikoki, are gehiago, arriskutsua ere izan zitekeela etorkizunari begira. Esan nahi baita, borondate ona erakutsiz —euskal literaturarekiko konpromiso argia ez ezik—, Eusko Jaurlaritzaren murrizketa legitima genezakeela, idazleek estaliko zizutenez administrazioaren akatsak.

Krisi garaian gaudena ez dut nik ukatuko. Krisi garaian gaudenez, literaturak eta kulturgintzak murrizketak izan behar dituenik ere ez. Baina, murrizketa horiek neurritzat egitea eskatuko nuke, doitasunez, euskara kaltetu gabe, beti ere; are gutxiago, euskararentzat ziren diru apurrak askoz aberatsagoa den erdara gizentzeko, edo ingelesarekin esperimendu makurrak entseatzeko erabiliko badira. Beste norbaitek esango luke, bidenabar, krisi garaietan kulturgintza baztertzea akats estrategikoa dela; izan ere, ikerketa teknologikoaren babesa inork gutxik zalantzan jartzen badu, kulturgintza gerizatzat ere giza kapitala hobetze aldera egiten dira ahaleginak: inbertsio modu bat da kultura, etorkizunari begira. Baina, tira, euts diezaiozun, eskatzen zaigunez, ponderazioari.

Gero etorri dira Kultura Saileko murrizketak, zertxobait mugatuagoak, hori bai. Gero etorri dira emankortasunik gabeko bilerak eta bilerak beste erakundeekin. Laguntzak eskatu ditugu, han eta hemen, urtero eskatzen ditugun be-

zala, edozein kultur eragilek egiten duen bezala, baina inoiz ez musu truk: gera dadila argi hori; aitzitik, programa zaharrak burutzeko beharrezkoa den babesa eskatu dugu, eta, halaber, garatuta ditugun programa eragingarri ezberdinak burutu ahal izateko —duela gutxi aurkeztu du Elkarte honek, esaterako, *Hitzen Ubera* izeneko webgune sendoa, euskal literaturaren eta, horrekin batera, beste kultur adierazpen batzuen mapa gaurkotua eskaintzen duena, finantziazioz estali gabe dugu, artean—.

Jarrera horretan akats estrategikoa ikusteko herria ikusi behar da, hizkuntza ulertu behar da bere gutxiespen prozesu guztian barrena. Zentzu horretan, duela gutxi entzun diogu, telebistaz, Markel Olano Gipuzkoako Ahaldun Nagusiari, iaz herrialde horretako euskalgintzari eragin zitzaien kaltea erreparatzeko asmoa duela eta horretan ari direla, estrategikoki, oso kaltegarria gertatu baita. Esan dudana, gaizki eginak kitatzeko, herria ikusi behar da.

Krisi garaian gaude, egon, baina krisiari aurre egiteko gaitasuna daukagu kulturgintzan: erabil dezakegun giza kapitala ezin hobea da, eta ez dute hori suntsituko ekonomiak eta erakundeen zurruntasunak. Zalantzarik ez izan. EIEEn —salbuespenen bat egon da— berehala jaso genituen elkartasun adierazpenak. Idazle baten proposamena ekarriko dut, esanguratsua den heinean: berak, gutun-azal batean, albuespen egoeran egon daitezkeenak laguntzeko, 1.000 euro omen dauzka gordeta, eta Elkarteari eskaini zizkion, berehala, euskalgintzaren alde egin genezan. Ez da anekdota hutsa. Hori giza kalitatea da, hori herri-kalitatea da.

Kultura berri bat hiritarrarentzat

Baina, larria izanda ere, ez dit diru murrizketak kezka gehien piztarazten, eta horrela adierazi diot Zabalari. Diru murrizketa horiek, baliabideen galera hori inguruabar jakin batean kokatu dut, zehazki, Jaurlaritzako Kultura Sailak bulztatu duen Kulturen Aldeko Hiritar Kontratuaren filosofia-

ren barruan. Oso estrategia arriskutsua baita berori euskara gutxituarentzat.

Kulturaren definizio jakin bat dakar delako Kontratu horrek, ilustrazio jakobinoenaren aldarrikapenak egiten ditu bere eta, bide batez, arbuiatu egiten du kultura gutxituentzat babes gehigarria eskatzen duen ikuspegia —beste ilustrazio baten, ilustrazio erromantikoaren definizioa dena, bestalde, Joxe Azurmendik ederki asko aztertu duenez—: kultura ez zaio gehiago lotuko herri baten hizkuntzari, ohiturari, musikari edo ahozko tradizioari, aitzitik, kultura des-substantziatu egiten da, norbanakotu, psikologizatu —hizkuntzaren galerak berak arrazoi psikologiko hutsak lituzke—, hitz batean, soziologia postmodernoak esango zuenez, *nortasun likido* batean sartzen dira kultura eta hizkuntza. Alegia, hiritarraren kultura definitzerakoan ezaugarri transbertsal askorekin nahasten da hizkuntza nazionala: maila berean jartzen dira kultura profesionala, genero-kultura, adin-kultura, kultura erlijiosoa, sexu-aukera, ideologia, estatusa eta abarrek, inolako prelaziorik gabe —ez baitugu ukatzen, noski, beste ezaugarri transbertsal horien garrantzia—. Nazioari deserrotzen zaio kultura eta banakoari errotzen, esan nahi baita, Kultura Sailak banakoaren arabera diseinatuko duela politika kulturala, aurrerantzean.

Eta gurea hizkuntza gutxitua da, ez dezagun ahantz, hizkuntza oso gutxitua: katastrofismotan erortzeko asmorik gabe esango dut, inondik inora, biziraupena segurtatuta ez daukan hizkuntza. Laguntza asko, zaintza ugariak behar ditu gure hizkuntzak: batetik, hiztunek ahalegin handia egin behar dute bere alde, gizarte eragileek, halaber, eta, nola ez, euskal administrazioak. Baina, lagundu beharrean —Nafarroako administrazioak eragozpenak baino ez ditu jarri, orain arte, eta debekuak; Ipar Euskal Herrian, berriz, ezikusiarena egiten zaio euskarari, hori bai oso modu txukunean, hiritarrak askatuko zituelakoan, herriak suntsitu zituen iraultza jakobinoaren izenean, gizon-emakume berriak (deserrotuak, estandarizatuak, masifikatuak) ekarri zituen iraul-

tza heroiko baten izenean, askatasunaren, berdintasunaren eta elkartasunaren izenean, esango digute—, orain, EAEn, Kulturaren Aldeko Hiritar Kontratuaren matematikak kal-tetu egingo du berriro euskara.

Matematikak agintzen baitu zenbat kontsumo kultural egin daitekeen euskaraz eta espainolez —frantsesaz ez ziren gogo-ratu; ingelesarena, broma txar gaizto bat besterik ez da—. *Egin daitekeen* esan dut, eta ez egiten den, zeren eta segur bai-naiz, matematika kualitatibo batek kultur kontsumo eta sormen sendoagoa eta dinamikoagoa atzemango lukeela euska-raren unibertsoan. Horrela, matematikak agintzen du, arra-zoi estatistiko kuantitatiboak agintzen du diru gehienak joan behar zaizkiola hiztun espainolari. Labur, erdal kultura indar-tzen da, gehiengoaren hizkuntza denez, eta euskal kultura areago gutxitzen, gutxiengoaren hizkuntza denez.

Matematikak, jakin ere, ez baitaki historiaz, ez da ongi mol-datzen denboraren errekan, dagoena neurtzen du, ezin du neurtu dagoena nondik eratorri den eta zergatik, zein errekak ekarri duen. Matematikak ez daki euskara noiztik ari den gu-txitzen, mendez mende nola eraso duten Frantziatik eta Es-painiatik.

Matematika hori abiarazten dutenek bai, ordea, hori guz-tia badakite, Frantziatik eta Espainiatik, horrexegatik bul-tzatzen dituzte, hain zuzen, Kontratu horiek. Ezberdintasu-na, aberastasuna, onartzen ez duen berdintasunaren izenean, norbanako desantropologizatu batek bide dituen eskubide unibertsalen izenean. Demokratak dira, gainera, demokra-tarik badago, kontratu horiek egiten ditu demokrata, zenba-kiaren abstraktutasunean, formalismo juridikoen des-hara-gian; demokraziatasunaren jabeak direnez, zirt edo zart era-bakiko dute zure demokratikotasunaren neurria.

Ez da estrategia berria, ordea. Jakobinismoak beti jokatu du berdin hizkuntza gutxitu guztien aurrean. Gogoratuko dugunez, oraingo sozialista espainolen esparru ideologiko berean, hots, Sobiet Batasun ohian, berdin antzekotu egin zuten errusiera, esaterako, Letonian, Lituanian eta Estonian,

hizkuntza nazional gutxituekin: hiru hizkuntza nazional horiek zeuzkaten eskubideak baino gehiago zeuzkan errusierak, noski, Errusia handian, alegia, herrialde baltikoetako administrazioan eta bizitza ofizialean errusierak zeuzkan eskubide absolutuak ez baitzitzazkien onartzen hizkuntza nazionalei; gero, minorizazioaren ebakia zorrozteko, eskubide berberak eskainiko zizkieten bertan bizi ziren komunitate poloniar edo, demagun, ukrainarrei. Eskubide indibidualak, eskubide matematikoak, nazio hizkuntzak ez onartzeko aitzakia hutsa. Gizon-emakume berrien hizkuntza deitzen zuten errusiera, bestalde, bertan jaso baitzitezkeen bakarrik filosofia iraultzaile berriaren oinarriak, bertan ahalbidetzen baitziren bakarrik mundu berrirako garapen kognitiboak. Berdin antzera gertatu zen Jugoslavia ohian, esaterako, Eslovakian. Berdin antzera iraultza egin zuen Frantzia jakobi-noan, arestian esan dugunez, frantsesez baino ezin baitzen adierazi ilustrazioa, Parisko bizimodu distiratsua.

Eskerrak historiak matematika baino gehiago dakien, eta erakutsi digun, herrialde baltikoetan zein Jugoslavia ohian, zer gerta daitekeen Euskal Herrian, borrokatzen bagara askatasun nazionalaren alde. Asmatuko ahal dugu bidea!

Hori badakite, jakin, eta eragotzi nahi dute. Eskubideez eta Kontratuaz harago, ahaleginak eta bost egingo dituzte kultura espainolak, kontsumo erraldoi ezagunaz harago, lehenago, EAEn zeukan presentzia areagotzen, erdal sorkuntzak inoiz izan ez duen sarea egituratzen, antolatzen. Sortu duten Euskadiko Idazleen Elkarte horren adibide. Ikusiko dugu zer lortzen duten eta noraino engaiatzen dituzten oso bakartuta ibili diren idazle eta sortzaileak. Ikusiko dugu azpitik eragin ez den mugimendu hori egonkortzen duten gaienetik, administrazioetik, artifizialki.

Ez dugu ahaztu behar, dena den, egitasmo hori ez dela sozialisten ideia hutsa izan, lehenagotik datorrena baizik: Euskal Kulturaren Plana egin beharrean, euskal kulturari buruzko definizio nazional bat eman beharrean, aurreko Jaur-laritzak diseinatu zuen Kulturaren Euskal Planean dago ga-

rapen horren oinarria —gauza bat baita gaur egungo Euskal Herrian zenbat hizkuntzatan egiten den kultura eta, beste bat, estrategikoki, etorkizuneko Euskal Herrian, zein hizkuntzatan eragin nahi den kultura—.

Euskal Herritik Kurdistanera

Euskal kulturgintzaren hondarrean sartzeko astirik gabe, beste nazio batera abiatu beharrean gertatu gara, berriro ere, eutsezintasunez. EIEk Durangoko Azokarako argitaratu duen *Hegats* aldizkariaren ale berriaren karietara, Kurdistani buruz etorri diren artikuluei hitzaurrea egiteko eskatu zaigu, hain zuzen. Testu artean abiatu gara Kurdistanera, gure etxea utzi gabe, baina gogoz aske; arima hertsiz, bide-nabar. Karlos Zurutuza, Manuel Martorell eta Urtzi Urruti-koetxea izan ditugu bidelagun, esku-makil.

Bidaiatzeko aholkua eman digute beti kosmopolita modernoek euskaldunoi. Itxikeria baztertu behar dugu, mundua ikusi, mundutik ikasi, mundugabeak garenez, bertan ikasitakoa desikasi, kosmopolisean. Eta, hain zuzen, aholku hori beti gogoratu behar dugunez, behin batean hartu genuen hegazkin arina hartu dugu, Bilbotik Istanbuleraino, oroimenez; eta, handik aurrera, autobus geldoa, Anatoliako gainetan barrera. Leihoaren ondoan jarri gara, lasai, begiradaren muga.

Lekuak eta jendeak ezagutu ditugu; hiriak, herriak; mendi zoragarriak —Ararat mitikoa, horien artean—, labirinto bat mendien artean; eremu elkorak, aintzira lasaigarriak; harresiak, minareteak, gurutzeak; zein baino zein ederrago, ilusentziak eta ilunabarrak; begi biziak ikusi ditugu eta, halaber, begi ilunak; erdeinua eta harrokeria; hizkuntzen borroka, isiltasuna, hiztunak atsedean hartzen duenean; polizia, kontrolak, gerrarako armen presentzia itogarria...

Ez baitziguten esan, bidaiatzeko aholkatu zigutenek, gure bidaiak ezin zuela Kurdistan hartu helmugatzat.

Geografia erraldoi bat, Anatoliatik Irango mesetaraino eta Kaukasotik Mesopotamiako lautadaraino. Ia 40 milioi biz-

tanle lau estatutan banatuak, Turkia, Iran, Irak eta Siriaren mugen barruan, komunitate garrantzitsuak dituen Kaukasoko eta Asiako Erdialdeko Errepubliketan, eta diaspora izugarria munduan zehar. Inbasioak eta gatazkak. Ukazioa, asimilazioa eta anikilazio-politika. Espetxea. Tortura. Heriotza-zigorra immediatoa, edozein kale-ertzetan. Genozidio sistematikoa, hitz batean.

Erresistentzia, mendeetako erresistentzia setatia. Estatu propioaren aldeko borroka. Alderdi politikoak. Sindikatuak. Borroka armatua, 25 urtetan 40.000 hildako ekarri dituen, 4.000 herri eta hiri desagerrarazi dituen. Harrotasuna, bandera gorri zuri eta berdea, erdian eguzkia daramana. Erresistentzia jakintsua —irakurri dugu eskuetan taupadatzan zaizkigun testu hunkituetan—.

Kultura zahar bat, oinarrian. Hizkuntza bat, dialekto ezberdinetan banatua —kurmanji, sorani, gorani eta zazaki, nagusiak—. Musika, tradizio eta sinesteak. Jantzi tradizional koloretsu eta ikusgarriak, Rousseauri hainbeste gustatzen zitzaizkionak. Errituak eta jaiak. Alaitasun partekatua. Kontzientzia kolektibo objektibatua, Durkheimen definizioan.

Ahokotasunean gorde den literatura bat: epopeia, kantu eta kondairak. Gai abertzaleak: batasuna eta askatasuna aldarrikatzen da. Gai sozialak: inperioak ekarri dien txirotasuna salatzen da, emakumearen bazterketa...

Oroz gain, kulturgileak diren poetak: kazetari, historialari, lexikografoak... Gizaki politikoak: zentsura, errepresioa eta kartzela jasan dute eta heriotza bortitzarekin ordainarazi diete poetatasuna. Ondare kulturala gordetzeko beharra atzematzen duten kulturgileak dira poetak. Itzulpenak bulztatu dituzte: Puxkin, Schiller, Byron... Kazetaritza sortzen ahalegindu dira... BERPIZKUNDE NAZIONAL GUZTIAN BEZALA: Herder eta Goethe; Azurmendi, orobat.

Herri normala nahi dute izan, hizkuntza normala: literatura normala nahi dute sortu, zentsurarik jasango ez duena, kartzelarekin mehatxatuko ez dituen. Itxaropena galdu ez duelako, etorkizunean argia ikusten duen herria —irakurri

dugu—: boterea eskuratzen hasi dira Iraken, eurena den petrolioa ustiatzen, ur-baliabideak kudeatzen...

Itzuli gara Kurdistanetik. Euria da, euri eskergarria. Hartu ditugu maletak, jarri ditugu oinak berriro ibilian, eta Kurdistan aurkitu dugu aireportuan: uso zuri baten arkitektura, Loiun, odolez zipriztindua. Herri txikiago bat, bi estatutan banatuta, lau administrazio-esparrutan erakundetuta, hizkuntza gutxitu bat, euskalki andana, borroka armatua..., arnasestu bat etorkizunari begira.

Ez dugu askorik ikasi, egia esan. Genekiena ikasi dugu, eta hori ez zen bidaiatzea aholkatu zigutenek agindu zutena. Ikusi behar genuena galdu dugu kanpoan. Ez dugu jakingo, nonbait, ikusten, ikusi behar dena.

Giza begiak ez baitu biltzen optika objektiboa, Wittgensteinek erakutsi zigunez: giza begiak ikasi egiten du zer behar duen ikusi, eskolan, kalean, hedabideetan..., etenik ez duen sinboloen arteko borrokan. Gutako bakoitzak era ezberdinean aplikatzen ditu bere itsutasunak.

Horregatik, hain zuzen, begi handia —inperio handia— duenak gidatu behar du euskaldunon begi txikia; itsutasunik ez duenak argitu behar du euskaldunon itsutasun neurrigabea. Bazter dezagun, behingoz, gure itxikeria.

Bidaia ezazue, madarikatuak! Bidaia ezazue, zuen begia, zuen herria utzita, begirada zuzena erabakitzen duen begi handiaren —inperio handiaren— barruan! Ireki ezazue zuena ez den begia eta ikusi, behingoz, ikusi behar duzuen!

Begi handi horretan hasten da biolentzia.¶



XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

***Egunkaria* auziaz gogoeta bat**

Euskaldunon Egunkariaren auzia dei dezakeguna oso hurbiletik bizi beharra gertatu zitzaidan, zazpi urteko epe hartan Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko idazkari nagusia izan nintzelako. Ez lehen lerroan, protagonista izan zirenak eta ‘larrutik ordaindu zutenak’ bezala —kasu honetan esamoldea metafora baino zerbait gehiago da—, bai bigarren lerroan gertatutakoaren ondorioak ahal nuen ongien jasanez eta bideratuz; izan ere, kontuan hartu behar da *Euskaldunon Egunkaria*, beste hainbeste elkarte kiderekin batera, sortzetik beretik izan zela Kontseiluaren kide eraginkorrenetako bat.

Orain, urteak igaro eta auziaren fase berri batean gaudelarik, agian ‘hondar-fase’ batean, gogoetak egiteko garaia da oraindik, historiak gerorako zerbait ikasteko balio lezakeela uste badugu, behintzat.

Erraza litzateke 1990ean *Euskaldunon Egunkaria* sortu zenetik 2010eko apirilaren 12an auzipetuek deliturik ez zutela auzitegiak aitortu zuen arteko kronologia —gurutzebidea— eskaintzea, baina ez dut uste horren premia handirik dagoenik, Wikipedian argi eta garbi emana baitago hori guztia. Horretan lerrook agortu ordez, nahiago dut azken aldian batek baino gehiagok eskatuaren arabera, gertatutakoaz gogoeta egitea.

François Alfonsi Europako diputatuak (*Europe Ecologie* koalizioa) *Berrian*, euskal gatazkaz ari direla, azaldu du «mota askotako biktimak» daudela, eta *Egunkaria* auzia aipatu du.

Gatazka aipatzen delarik, batzuek hildakoak gogoratuko dituzte. Biktimak garrantzitsuak dira, baina mota askotako bik-

timak daude. Adierazpen-askatasuna, adibidez. Gogoratu dezagun *Euskaldunon Egunkariaren* kasua. Prentsa- eta adierazpen-askatasuna inongo eragozpenik gabe zangopilatu zuten. Zazpi urte pasatu behar izan dira auzia egin aitzin. Auzipetuak zuritu dituzte baina ez da kalte-ordainik izan, ez da barkamen eskaririk izan. Eta auzia ez da bukatu osotasunean.

TV3 Kataluniako telebista publikoko zuzendaria den Monica Terribasek ere orain gutxi esan du:

Lotsagarria da. Zentzugabekeria bat da hedabide bat ixtea eta handik urte luzeetara onartzea ez zegoela epaitzeko arrazoirik. Badirudi inork ez duela hausnartzen bidegabekeria politiko-judizial horren inguruan.

Ildo beretik, eta arestian, *Egunkaria* auzia izan du hizpide Izaskun Bilbao eurodiputatu jeltzaleak ere Europako Parlamentuan. Eta, gai hori hizpide hartuta, «jarrera aktiboagoa» izateko eskatu dio Bilbaok Europako Parlamentuari. Gogorra ekarri du European adierazpen-askatasunaren aurka egin den eskubide urraketa argiena *Euskaldunon Egunkaria* ixtea izan dela eta Europako Parlamentuak ez duela oraindik inolako adierazpenik egin horretaz. 2003an egunkari bat «legez kanpo» itxi zutela esan zuen Bilbaok, «Espainiako Konstituzioaren arauak berak ere urratuz eta gutxiengoan dagoen talde linguistikoko eta kulturala jazarriz». Horrelakorik berriro gerta ez dadin, jarrera aktiboagoa izateko eskatu zion Bilbaok Europako Parlamentuari.

Horrelako aitortpen eta iritziekin zerrenda luzea osa genezake, eta badirudi asko direla zerbait egitea falta delako horretan bat datozenak, hausnarketa zehatza egitetik hastea eskatuz. Nire ekarpenak ez dauka beste inorena baino zorrotzagoa izateko asmorik, eta gehienez ere, hurbiletik bizi izandakoak iradokitzen dizkidan zenbait iruzkin eskaintzea izango da.

Lehenik esan nahi dut, urte pare bat lehenago jabeturik geundela Kontseiluan Euskalgintzaren aurkako giroa gogortzen hasita zegoela, eta horren lekuko ziren AEKri, Ikastolei, *Jakin* aldizkariari, Elkar argitalpen-entresari eta abarri

egindako erasoak eta kritikak. Kontseilua giro horri guztia-ri aurre egiteko asmoz Ekintza Plana deitua antolatzen saiatu zen, baina zoritxarrez behar adinako konbentzimendua eta indarra metatzea lortu gabe. Euskara eta euskal kulturaren aldeko, normalizazioaren aldeko olatu indartsu bat sortzea izan zitekeela hoberena eraso-giro hari aurre egiteko, eta plan aski xehe bat idatziz prestatu ere egin zen, baina ez zen lortu inondik ere beharko zukeen adostasun eta laguntzarik. Komunikabide batzuek eta zenbait tertuliakidek alde zaurretik markatu eta nabarmendu egiten zuten gero judizialki tratatuko zena, edozein aitzakiaz baliaturik. Praktika mota hori oso sarri gertatu izan da eta komunikabide batzuek egiten duten hori zalantzarik gabe aurre-abisu gisako zerbait bihurtzen da. Gainera, hedabide haiek berek edozein sasi-argudio sortzeko joera eta erraztasuna bazuten ere, batzuetan, hemen, gure artean ere honelakok edo bestelakok egindako aitortpenak ere erabiltzen zituzten defendatzen zutenaren berme gisa.

Hitz batean, etxetik hasita ahuleziak genituen eta prebentzio-lanak ez zuen eman beharrezko fruiturik, eta hasierako zirimiri eta euriak gerora uholde bihurtu ziren. Beraz, ateratzen dudana ondorioetako bat da, gauzak ez direla bat-batean gertatzen, baizik eta prestatze-fase bat izaten dutela, baina erreakzio-gaitasunak huts egiten badu prozesuak inolako zailtasunik gabe hurrengo urratsetara jotzen duela. Bestela esateko, gauzak gertatu eta gero manifestaldiarekin eta, ondoren, egunkari berria bideratzeko egin zen ahaleginaren erdia alde zaurretik egin izan bagenu, gauzak baliteke beste era batekoak izatea, baina seguru asko ez genuen sinesten tamaina hartako eraso bat gainera etor zekigukeenik ere.

Gauzak gertatu eta erantzuna emateko ahaleginetan politikari batzuek erakutsi zuten hoztasuna eta kalkulua eta erakunderen batetik egunkari berria «bermatu» eta «babestu» nahiz egindako mugimenduak ere itxuraz fede oneko estrategia bezala aurkeztu baziren ere, bistan da errugabetasuna argi eta garbi aldarrikatu beharrean ordura arteko ibilbidea

susmagarri bihurtzen zutela nolabait aditzera eman ez izan zitekeen eta izan beharko zukeen bezain egokia ez zela izan *Euskaldunon Egunkariaren* iragana. Gainera, batek baino gehiagok pentsatu ere pentsatu zuen ezbehar hartaz baliatu nahi zutela beste garai batzuetan eskuratu ez zuten egunkariaren kontrolaz jabetzeko. Ez da erraz aurkitzen adjektibo kalifikatzailearik egoera hartatik nolabaiteko irabazpidea atera nahi zutenentzat.

Beraz, estatuaren aparatuen jokabidea aztertzeaz gainera, sorturiko kalteak zerrendatzean, hurbilago gertatutako ahuleziak eta jokabide eskasak ere kontuan hartu beharrekoak dira gertatuaren ikuspegi orokorra ulertu eta garbitu nahi bada.

Eta, azkenik, baina ez atzena, esan behar da *Egunkariako* auzipetuen inguruan sortutako elkartasun-olatuak izandako eragina ere oso kontuan hartzekoa dela, geroko garaietarako. Ahuleziak eta eskasiak izan ziren bezalaxe elkar babes-teko gune sendo bat gero eraiki izana ere ahaztu behar ez dugun aktiboa baita. Etsipenerako joerak nagusitzen direnean, ona da gogoan izatea guztion ahalegin bateratuak duen indarra ezina ekinez egin dadin.

Garabide egitasmoa

Bizitzak ustekabeen sortzen dituen aukera horietako batentzatik, duela zazpi urte Txilera joan eta maputxeek abian jarri zuten egitasmo batean esku hartzeko aukera izan nuen, mapudungun hizkuntzaren berreskuratze- eta sustatze-ekitaldi batean.

Aukera hura, alde batetik, maputxeak eta haien kultura ezagutzeko abagune egokia gertatu zitzaidan, eta hedape- nez, Hego Amerikako indigenen egoeraren berri izaten has- teko; eta, bestetik, euskararen berreskuratzeari buruz gure esperientziaren berri labur bat gonbidatzaileei emateko.

Handik itzultzean, eta geroko lanaz gogoeta egiten hasi nintzenean, ezinbesteko iritzi nion Euskal Herritik mapu-

txeekiko eta beste indigenekiko loturak sakontzeari, eta era iraunkorrean gainera. Kontseiluak zerbait egin zezakeen, baina muga nabariak zituen bete-betean horretan sartzeko, eta horra HUHEZIREn baitan Garabide egitasmoa non sortu zen hutsune hura betetzera.

Harrezkero, behin baino gehiagotan izan dut egitasmo horrekin lankidetzan aritzeko aukera, eta behin baino gehiagotan izan dut, maputxe, aimara, guarani, kitxua eta abarren ordezkarien aurrean, euskara berreskuratzeari buruzko gure esperientzia azaltzeko aukera.

Garai batean gure arbasoek Ameriketara dirua egiteaz gainera, armaz bertako kulturak eta hizkuntzak suntsitzen ere izan zuten parte orduko inperialismoari hauspoa emanaz. Gerora, geure larruan sufritu izan dugu zer den kultura eta hizkuntza zanpaturik ikustea eta seguru asko orain enpatia gehiago dugu antzeko egoeretan daudenak ulertzeko. Horregatik, uste dut, egitasmo ekonomikoetan haiei laguntzea utzi gabe, euskaldunok ekarpen berezia egin diezaiegegula ildo horretatik une honetan beren hizkuntzak berrindartzen eta beren kulturak eguneratzen ari diren amerikar indigenei.

Eta gai hauetaz Interneten miaketan nabilela, harriturik ikusi dut, agian guk baino motibazio gutxiago izan beharko luketela diruditen txekiarrak Pragako Karlova Unibertsitatean nolako lana burutzen ari diren. Badute egitasmo bat Ertamerika eta Peruko hizkuntza indigenei buruz eta bertan buru-belarri ari da Vendula Hingarová filologoa, Latinoamerikako eta Eskandinaviako hizkuntza indigenei buruzko eskolak ematen dituen eta nahuatl-espainiera elebitasunari buruz doktore-tesia egiten ari dena.

Era berean, Vlastimil Rataj etnologo eta filologoak kitxuak eta aimarak Andeatako espainieran duten eraginaz doktore-tesia idazten dihardu eta, gaur egun, Karlova Unibertsitatean Azterketa Iberoamerikarreko Zentroan eskolak ematen ditu.

Aipaturiko proiektuaren tutoreak hauek dira: Frantisek Vrhel, unibertsitate bereko Etnologiako Institutuaren Zu-

zendaria, eta Bohumil Zavadil, Azterketa Erromanikoen Institutuko irakaslea eta Amerikako hizkuntza eta kultura natiboen ikertzailea. Eta talde berean aritzen dira Lenka Zajíčová, guaraniaren hizkuntzalari, eta Alexandra Hubáčková, Estatu Batuetako literatura natiboaren irakaslea ere, biak Olomouc-eko Palackého Unibertsitatekoak.

Eta ia bat-batean bururatu zait galdera: zergatik ez dago gure unibertsitateetan talde txekiar horien parekorik, itxura batean, askozaz arrazoi eta hurbiltasun gehiago dugularik antzeko egitasmoetan gure unibertsitarioak inplikatzeko? Ez ote lirateke biziberrituko gure filologiak, hizkuntzalari-tzak, etnologiak, antropologiak etab., gisa honetako lantaldeak eta egitasmoak burutuz, aldi berean historian zehar metatu dugun zorra zertxobait arinduz?

Bukatu aurretik, eta gai honetan sakondu nahi duenarentzat, hemen ezartzen dut Garabide egitasmoaren webgunea:

www.garabide.org/euskara/albisteak/bere-egitura-sendotzen-ari-da-garabide

Eta aipatu ditudan txekiarrekin harremanetan jarri nahi duenik balitz, honako hauek dira ikertzaileen web eta helbide elektronikoak:

indianske.jazyky@seznam.cz

pato.yapoq@seznam.cz

<http://runasimi.ic.cz>



XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

Gertakarien aurrekari izan zen liburua

Orain dela urtebete inguru, Imanol Muruaren *Loiolako hegiak* izango zenaren eskuizkribua irakurtzen ari nintzela, neure buruari esaten nion, harriturik: «Hemen Otegi aitortzen ari duk beraiek izorratu zutela Loiolakoa». Ez zen aitortpen esplizitua, baina bai nahiko argia edozein irakurle-entzat. Konstatazio horrek galdera bat zekarren ondorioztat: «Autokritika hau modu publikoan egitea erabaki badute, zergatik da: irakaspena atera eta beste modu batean jokatzea erabaki dutelako?». Erantzuna begien bistan dago, orduan gutako inork sinets zezakeen baino askoz ere maila ageriagoan.

Muruarena, erreportaje-liburu bikaina izateaz gainera, herri honen bilakaera politikoan bere garrantzitzoa eduki duen atala izan da, horrenbestez. Garrantzi instrumentala, txikia eta zirkunstantziala, noski, baina ez da egunero gertatzen kulturazko zer batek gure historiaren nondik norakoan toki bat eskuratzea, eta horregatik ere, besteak beste, merezi du aipatzea.

Urteko uzta

Gatazkari buruzko gogoetak hurrengo baterako utziko ditugu; besteak beste, nik lerrook idazten ditudanetik irakurleen eskuetara iritsi arte, azken aldiko gertakarien martxa ikusita, berrikuntzak izango direlako dudarik gabe. Hortaz, liburuez hitz egiten segituko dut.

Aurtengoa ez da izan halako urte distiratsua; ez dakit kri-siak izan duen zerikusirik, ala kasualitateari zor zaion urte batzuk besteak baino oparagoak izatea. Nolanahi dela, ez da inola ere urte kamutsa izan sorkuntzaren aldetik. Poesiaren alorrean, esaterako, ia hamar urteko isilaldiaren ondoren obra berri guztiz gomendagarri, berritzaile eta ederrak oparitu dizkigute Miren Agur Meabek (*Bitsa eskuetan*) eta Jon Benitok (*Bulkada*), Jimenez, Linazasoro, Serrano, Otxoteko, Zelaieta eta beste batzuen ahaztu barik.

Ipuingintzan ere lan bikainak atera dituzte Eider Rodriguezek (*Katu jendea*), Ur Apalategik (*Fikzioaren izterrak*), Xabier Montoiak (*Fucking artists*), beste batzuen aleak ahaztu gabe (Etxaniz Rojo, Mendiguren, Urrutia Capeau, Linazasoro bera). Nobelan beste horrenbeste: klasiko batzuen ondoan (Urretabizkaia, Irigoien), berriak agertu dira indar nabarmenez (Iratxe Esnaolaren *Galerna*, Lander Garroren *Kontrarioa*); ez dira ahaztekoak hain gazteak ez izan arren plazara orain jauzi egindakoak (Jokin Ansorena, Yurre Ugarte) edo bidea urratzen dabiltzanak (Barandiaran, Irati Jimenez, Zubizarreta), eta obra gogoangarriak utzi dizkigute, halaber, Meabek (*Zazpi orduak*) eta Antzak (*Ospitalekoak*).

Horrez gain, azpimarratzekoa da nazioarteko narratiba garaikideko liburuak itzultzeko ahalegina. Iaz jauzi nabarmena eman zen, eta aurtun eutsi egin zaio apustuari. Alberdania, Erein eta Igela argitaletxeen eskutik datozkigu Paul Auster, Philippe Claudel, Suzanne Collins, Anna Gavalda, Arnaldur Indridason, Mohamed Xukri... Ea irakurleen erantzuna ere apustuaren mailan dagoen eta partida hau irabazteko gauza garen.

Saiakera gailen

Hala ere, genero bat nabarmentzekotan, nik uste 2010ean saiakera gailendu dela. Ez da bat-bateko aldaketa izan. Iaz ere, bat baino gehiago izan ziren kontuan hartzekoak, eta horren seinale dira Lertxundi eta Azurmendiren lan sari-

tuak, baina aurten mordoxka dira kalitate goren eta interes handiko saiakerak. Zerrenda bat egingo dut buruz, eta badakit batzuk ahaztuko ditudana.

Jokin Urainek kartzelako testigantza eta literaturaren berri bildu du *Ez dago etxean* kronikan; Ignazio Aiestaranek *Walter Benjaminen aingerua Gernikako bonbardaketatik* idatzi du, XX. mendean hasitako airetiko gerra-moldea (atmoterorismoa deitzen du berak) eta horrek dakarren totalitarismoa aztertuz eta salatuz; Patziku Perurenak Trabukoren kantaren haritik tiraka jardun du *Goizuetan bada gizon bat* liburuan, azkenaldian ohi duen gisan artxibo-lanaz aberastuz herriaren memoria; Pablo Sastrek *Gizajendearen ahitzea* kaleratu du, orain urte batzuetako *Gauzen presentzia* gogoangarri haren ildotik espazioak sentimenduetan duen eragina arakatzuz, bere ikuspegi heterodoxotik; Mikel Hernandez Abaituak bere gaztarotik honainoko oroitzapenak bildu ditu, musika, politika eta batik bat literatura kontuak azalduz, *Azukre xehea gatz larria* liburuan.

Horiek dira orain arte ezagutu eta gozatu ditudanak. Atera berri diren edo oraindik kaleratzeko zorian diren beste batzuek ere guztiz gomendagarriak dirudite itxura guztien arabera: Jon Sarasuak *Ertzeko zatiak* apunte sorta eman digu, Hego Ameriketara egindako bidaietan jasotako gogoe-tak, han bizi izandakoak baina hemengoontzat pentsatuak; zatikako idazkera erabili du Koldo Izagirrek ere *Autopsiarako frogak* osatzeko, euskararen historia sozialaz, geroaz, nondikoaz eta batez ere norakoaz pentsarazi beharko lukeen lan zirikatzailea; eta Joseba Sarrionandiak, azkenik, urteetan landutako liburukotea ekarri digu Durangoko Azokan («ekarriko ei digu», niretzat oraindik): *Moroak gara behelaino artean?*, amazigh herriaren inguruko ikerketa erraldoia.

Saiakera asko eta oso onak. Pentsamendua lantzen den seinale. Gogoeta horiek guztiak zenbateraino partekatzen ditugun edo solipsismo ariketa bihurtzen diren, horra kezkatu beharko gintuzkeen zalantza.

Museoak eta errealitate ekonomikoa

Aspaldi bihurtu ziren museoak eta azpiegitura handiak oro har kultur bizitzaren gune eta ikur. Horiexek jaten dituzte aurrekontuen zati handienak eta horiexek betetzen hedabideetako orriak eta minutuak; horko gorabeherek ez dute zerikusi handirik sorkuntzarekin, hausnarketarekin, edertasunaren bilaketarekin, baina ikusgarritasunaren kultura horrek du lehentasuna, nonbait, politikarien agendetan.

Aurten, hainbat atzera-aurrera bizi izan ditugu museoak direla eta ez direla. Udaberrian zurrumurruak ibili ziren Artium-en etorkizunaz, artistikoki erakusketa plan koherente eta interesgarria izan arren turismoa erakartzeko motor gisa funtzionatzen ez duela-eta; Uhartekoa ere kili-kolo sumatzen da, udal txikiak hura mantendu ezin, gobernua lagundu nahi ez... Donostiako Tabakaleraren foiletoa zertan amaituko den ere ezin jakin (Donostia 2016ko hautagaitzarekin nahikoa entreteniturik dago orain Elortza alkatea, hura argitu ostean ezagutuko dugu Egiako telenobela horren hurrengo kapitulua). Eta zer esan Guggenheim Urdai-baikoaz? Frankizien eredu kolonialista horrek kulturalki ezer aportatu badu (zalantzazko kontua), garbi dago bigarrenak ez digula deus berririk emango. Sosak akaso? Niri apustu okerra iruditzen zait: behin loteria tokatu eta zenbaki berberarekin tematzea bezalatsu. Krisi garai latz batean horretan egoskortzea, berriz, diru publikoa arinkeriaz erabiltzea iruditzen zait, gutxienez, eta horretarako ez daukagu Chillida-Lekura begiratzea baino.

Hernaniko museoak, hamar urteko ibilaldiaren ondoren, kinka larria bizi du, dirudienez. Paraje zoragarria, obra bikainak, ospea eta izen ona nahi bestekoak, bisitariak ere erruz garai batean... baina azken urtean gutxitxo, eta enpresa pribatua izaki, ezin galerei eutsi. Instituzioekin hizketan ari omen dira, baina oraingoz, adostasunera iritsi ez eta urte berriarekin itxiko omen ditu ateak, udaberriarekin turismo-garai oparoxeagoa iritsi arte edo. Ez dakit zein den Za-

balaga baserriarentzako formula, baina gogoeta sektorialak museo-sare osoa hartu beharko luke barruan, nire iritzian.

Paperaren gainbehera?

Iraultza teknologikoa, aisialdi-ohituren aldaketa eta krisi ekonomikoa: hirurak elkartu eta koktel lehegarria gerta liteke zenbait sektorerentzat. Adibidez, papera euskarri duen kulturarentzat. Egunkari tradizionalak oso larri dabilta mundu osoan, eta hemen ere ez gara salbatzen. Gure kasua larriagoa da, euskarazko egunkari bakarra izaki, eta haren erosle-kopurua biziraupeneko marraren ertzean.

Zer egin? Lantua jotzea ez da oso erakargarria gertatzen gizartearen aurrean, baina kontzientzia apur bat daukagunok jabeturik behar genuke, eta egunkariaren jarraipena estrategikotzat jotzen badugu ahal dugun neurrian lagundu. Militantzia berba historiaren zakutik berreskuratu behar ote dugu? Lehendik ere militantziaren mailakoak izan dira bertako kazetarien soldatak. Jestio-eredu gero eta zorrotzagoak aplikatzen dabilta lehendik ere, eta ez da erraza konponbide mirarizkorik aurkitzea, irudimena hartara jarrita ere. Administrazioa presionatu behar ote dugu diru-laguntzak handitzeko? Erosleon inplikazio handiagoa bilatu? Edonola ere, auzolanerako garaiak datoz, diru-eske jarduteak dotore ematen ez badu ere.

Egunkarientzat esan dudanak, aldeak alde, balio dezake liburugintzarako ere. Salmentak lehendik ere beherako joera baldin bazuen, krisiak areagotu egin du kontsumoaren jaitziera; liburu elektronikoa irtenbide bat ote da? Gaur-gaurkoz ez. Alegia, hartzaile potentzialak hain gutxi izanda (e-rakurgailu horietako bat erosi duen jendea), askoz handiagoa da teknologian eta marketinean egin beharreko inbertsioa, salmentatik ateratako etekina baino; horrez gain, sareko doakotasunaren aldekoen presioa dago, produktu digitalen prezioa jaisteko, kopiatzeko askatasuna lortzeko... Momentuz, bederen, sail berri hau zabaltzeak arazo gehiago

dakarkie argitaletxeei abantailak baino; baina aldi berean jakitun dira berrikuntzen txanpan egon beharra dagoela, euskal liburugintza guztiz atzeratuta eta marjinalitatean geratuko ez bada.

Gatazkaren ondoren Veleia

Kazetaritza-lan batekin hasi dut urtearen errepassoa (Muruaren *Loiolako hegiak*), eta beste batekin amaituko dut: *Veleia afera*, Alberto Barandiaranek idatzia. Aurrekoa bezala, erreportaje ederra, ondo dokumentatua eta bikain idatzia, misteriozko eleberri baten gisa irakurtzen dena. Nahi nuke kronika honek gaiaren inguruko eztabaida eta zalaparta argitzen lagunduko balu, baina beldur naiz, jarrerak zein muturturik dauden ikusita, nahas-mahasak luzaroan jarraituko ote duen.

Markos Zapiain filosofoak idatzi zuen bezala, zorioneko gatazka beharbada amaitu amaituko da, baina horren ostean ere badugu zerekin entretenitu: Iruña-Veleia.¶



FITO ROGRIGUEZ

Irakurtzearen okermin makurra

Irakurketa ohiturak, berez, onak direla eman arren, aski hedaturik dagoen irakurketa mota batek bereziki kezkatzen nau: irakurketa funtzionala deritzona.

Irakurtzen jakiteaz harago, funtzionalki irakurtzea ongi dago, nahiz eta, ez euskaldunon artean soilik, onoimentzat hartua izan. Azken horrek artegatzen eta gogoetaratzen nau, hain zuzen ere.

Jadanik mende bat pasatu da Edith Whartonek *The Vice of Reading* saiakeratxoa *North American Review*ean argitaratu zuenetik (1903), eta, horrekin batera, honakoa adierazi nahi izan zuen, hau da, egunero irakurri behar duenak, gauza praktikoetarako, edota kultur ohiturak irakurketa mekanikoa egitera bultzaturik, ondorioz, literatur arloan eragiten duen idazkera kaltegarria dela oso.

Aitzitik, irakurketa funtzionala gizarte bertutetzat hartu izan ohi denez, irakurtzearen aldeko jarrerak sustatzeko hamaika ahalegin zabaldu nahi izan dute kultur erakundeek. Eta, ildo horretan, haiek ere kexu daude, behar beste irakurtzen ez delako, nonbait...

Nahiz eta asko irakurtzeak ez duen esan nahi behar bezala irakurtzen denik...

Baina berdin dio. Irakurketaren ariketa ona omen da, berez, gizarte honek dauzkan balioetarako.

Arnastu behar izatea bertutea al da, berez, ala ezinbestekoa?

Irakurketa funtzionala ezinbesteko izateak onoimen bihurtzen al du?

Kazetarien testu komunikatiboak, ulerterrazak, sintetikoak... askotan topikoak helarazten dituzten azalkeria laburak besterik ez dira, hala pentsamoldeak nola hizkuntza bera ere pobretzen lagundu besterik egiten ez dutenak; ene us-tetan, behinik behin, horrek ez dio euskarari inongo onik ekartzen.

Badaude, ordea, egon, beste idazketa eta beste irakurketa manierak, gizabanako bakoitzak bere buruarekin batera ari-tzeko erabili ohi dituenak, ezkutuak bezain ilunak agian, bi-zio hutsak... egungo gizarte gardenak begi bistan nahi ez di-tuenak, alegia, eta batere funtzionalak ez direnak... Horiek dira literatur maitale makurrok hobetsi ohi ditugunak, nahiz eta gizarteak ez dituen erraz onartzen. Aipatu idazke-ra hori erabili ohi duten idazleak ez dira usu sarituak izaten, ez eta beren idazkiak asko zabalduak ere... Aurten, aldiz, mota horietako testuek inoiz baino hedadura handiago edu-ki dutela da, niretzat behintzat, euskal kultur giroari dago-kionez, nabarmendu beharrekoa.

Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria hautatu nindute-nean, *Barnegats* aldizkarian azaldutako iritzian galdetu nuen: «noizko izango dugu euskaraz Prousten bertsiarik?» («Li-buruen xarmaz galdetu eta galdekatu (Prousten bidea)», *Barnegats* 12, 2006); eta, aurten, Joxe Austin Arrietak *Denbora galduaren bilaren* lehenengo liburukia plazaratu du euskaraz (Swann-enetik). Proustek berak ordaindu behar izan zuen liburu horren argitalpena Galimardeko argitaldariak kale-ratu nahi izan ez zuelako; baina, azkenean, euskaraz badu-gu irakurtzerik eta, zinez, ekarpen literario handia da ira-kurle okerminontzat.

Itzulpenaren aurkezpenean honakoa irakurri zuen Joxe Austinek:

Joxe Azurmendi, *Azken egunak Gandiagarekin* bere azken summa filosofiko-existenzial zoragarri horretan, beste ha-maika mila gogoeta eta argibide gogoangarriren artean, 339. orrialdearen inguruan, Stendahlen sindromea deitu ohi de-naz mintzo zaigu, entzuten edo ikusten edo usaintzen edo

dastatzen, hots, oro har, edozein zentzumenez hautematen ari garen objektuak gure subjektua erabat atzitzen eta xurgatzen diguneko esperientzia ezohiko baina bizitzan barrena noizbehinka denoi agitzen zaigun horretaz, eta zera dio, besteak beste:

Zer da gizon-emakume aberearen fakultate estrainio hori?... [...] esperientzia horietan ageri zaiguna da, gizon-emakumea ez dela egunerokotasunera mugatzen, arrazoimen enpirikora. Gure baitan uste ez ditugun fakultate eta ahalmen ezezagunak dauzkagula errealitatea modu ezohiko batzuetan ere atzeman ahal izateko, edo errealitateari geu entregatzeko. Eta fakultate horien jabe geu ez garela, baizik eta berak egiten direla bat-batean gure jabe, gure gainetik, eta errealitatearen dimentsio ez arrunt batzuetara transportatzen gaituztela. Errealitateak berak dimentsioak dauzkala edo barrendurak, egunerokotasunean susmatu ere egiten ez ditugunak. Eta errebelatzen zaizkigunean, geuk ez dakigu nola, ikaraz, zoriontasunez, izuz ausaz, edo konfiantzaz, «esanezinezko» zer batez, hanpatzen gaituztela.

Badirateke Marcel Prousten idazkintzaren Big Bang erral-
doia enfokatzeko beste modu batzuk. Baina honako hau, Joxe Azurmendiren aipamen horretan oinarritua, oso egokia iruditzen zait. Nabardura oso garrantzitsu bat erantsiz, gainera: Prousten «Stendahlen sindromea» ez du ezein arte-obraren ikusmiraren lilurak eragiten (Stendahlengan ez bezala, hari Florentziako Santa Croce elizaren begiespenak eragin omen zion-eta bere izena daraman estasi-mota hori), baizik eta... zera, badakizue, eguneroko bizitzako objektu ezin xumeago batzuek, aho-goxagarri teaz bustiriko madalentxo batzuek...

Irakurketa literarioak, funtzionalak ez bezala, mundua irakurtzeko balio baitu, giza esperientzietan barneratzeko eta haiek helarazteko. Aurten, gainera, Joxe Azurmendi Euskadi Literatur Sarietan hautatua izatea, bide batez, aipatzen ari naizen irakurketa molde horren hedakuntza bera litzateke, bada, azpimarragarria. Zeren eta, Azurmendik, edozein aztergai hartzen duelarik ere, ez du horri buruz tratatu edo eskulibururik idatzi nahi, ez du ezer frogatu nahi, gaiak ematen duena probatu (dastatu) baizik. Garai batean haztatu esaten zena (saiatzea) da bere helburua. Joxek ez baitu, bere xalotasunean, ezer irakatsi nahi, ikertu baizik;

baina, hori bai, Proustek edo Borgesek egingo luketen modura, idazkuntza dela medio. Eta, nolabait esanda, saiakera hura, idazkera hura da, agidanez, gure artean zabaltzen eta loriatzen hasia dena.

Eta ez bakarrik inprimategitik pasatutako testuen artean, arlo digitalean ere aurten aurkezturiko *Lapiko Kritikoa* ize-neko ataria bide horri atxikitzen baitzaio. Horrek guztiak, jakina, euskaraz idazkera estilo zaharberritua dakar, eta horri buruz gogoeta egin beharra dago, artikuluxka honek horretarako balio ez badu ere (F. Rodriguez: «Saiakera eta estiloa», *Lapiko Kritikoa*, 2010-11-01).

Bai Jon Sarasuak baita Maialen Lujanbiok ere estilo pertsonala bezain ezohikoa (ez funtzionala) eskaini digute aurten beren gogamenak partekatzeke.

Argitaratzeko asmorik gabe sorturiko testuak ziren hasiera batean Sarasuarenak, «lankideentzat» idatzitako «gogoe-ta zipriztinak», baina liburu batean biltzea otu zitzaion azken sei urteetan Hego hemisferiora egindako lan bidaietan idatzitako testu laburrak, eta *Ertzeko zatiak* argitaratu du *Argia* aldizkariarekin. Montaignek ere ez zituen bere *Entseguak* argitaratzeko idatzi, baina Marie Gournayk kaleratu zituenetik hausnarketak idazteko eta irakurtzeko modu berria hasi zen zabaltzen.

Maialenen *Hau koaderno bat zen...* ildo horretako beste proposamen ez-funtzional bat da. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoan jasotakoaren berridazketa eskaini digu bertsolari artistak eta, bide batez, irakurketa mekanikotik aldentzeko saiakera egin du:

DESIKASI
EZIKASI
IKASI
KASI
HASI
!

Espainiako Saiakera Saria eman diote aurten Anjel Lertxundiri *Eskarmentuaren paperak* lanarengatik eta, nola edo

hala, ohiko irakurketa mekanikoaz kanpo beste idazketa nahiz irakurketa motak zabaltzen ari direlako seinale bada.

Izan ere, irakurketa literarioak, zientziak ez bezala, mundua ulertzeko erabiltzen dugun hizkuntzaren bidezko esanahien berezko bikoiztasunaren berri ematen baitigu (Jakobsonek *shifter* deitu zuena...).

Horretaz aritu zen Roland Barthes testu literarioaren aldarrikapena eginez zientziaren ikuspegiari aurre egin nahian. Pentsamenduak ezin baitira adierazi adieraztea pentsatu ezean, eta, horren ondorioz, nahi dena iragarri ahal izateko, idazketaren garrantziari ere, adierazteari buruzko gogame-na garatzeko balio duen neurrian, kasu egin behar zaio.

Beraz, idazten duenaren eta idazlea den gizakiaren arteko bikoiztasuna eta urruntasuna lantzen duen «ariketa aliterarioa» saiakera da.

Idazketaren forma berezi horrek, hala «niaren osagarriez» nola «bestearen gehigarriaz», hurbilketa linguistiko-pedagogikoa egin ahal izateko balio digu.

Horrela egin dute aurtan Joseba Sarrionaindiak eta Koldo Izagirrek. *Moroak gara behe-laino artean?* Pamielan argitaratutako saiakeran, Unamunoren olerki baten itzala dago Josebak liburuari ezarri dion izenburuan. Liburua gai asko biltzen dituen entsegua da. Historian oinarrituta, egungoari buruz gogoeta egiteko: guda, inperialismoa, eremu urriko hizkuntzak, estaturik gabeko nazioak... *Autopsiarako frogak* Susan argitaratutako Koldorenak euskarari, haren egungo egoerari eta haren geroari begiratu dio testu laburren bidez. Saiakera horretan, egilearen estiloak akademizismotik at literaturaren eremura eramanez nahi izan du irakurleria, euskara dela-eta esanak nahiz gordeak, edo egin gabe baztertuak eta debekatuak ekarri ditu gogora testuak, haietaz guztiez hausnartzeko. Ikuspegi lauak alde batera uzten saiatu da, topikoei eskapa eginez euskararen egungo egoera ulertarazteko, literatura dela bide.

Patziku Perurenak Alberdaniarekin kaleratutako *Goizuetan bada gizon bat* izenburuko liburuak, berriz, ez du eska-

tzen ohiko irakurketarik, bertan mota desberdinetako tes-tuak elkartzen baititu. Narrazioa, historia, lekukoen hitz ja-rrioak (ahozko hizkeraren transkribaketa), doinuak eta bu-rutazioak txirikordatzen dira entsegu singular honetan, non, hori bai, ohi bezala, idazlearen estiloak hura dena ederki bateratzea lortzen duen.

Pablo Sastrek ere *Gizajendearen ahitzea*, bere aurtengo saiakera, kaleratu du. Ia hiru urte badira *Gauzen presentzia*, aurtan plazaratutakoaren antzeko liburuaz euskal literatu-rari opari ederra egin ziola, mundu modernoaren deshuma-nizazioa hizpide.

Idazki motzen bilduma da *Gizajendearen ahitzea*, eta orain-go gauzez eta gertaerez gogoeta egiteko baliagarria. Testuan zehar Kafka, Arendt eta, batik bat, Ivan Ilichen itzala nabar-mena da.

Azken boladan entseguari emana dago Pablo Sastre eta, esatea zilegi bekit..., bere literatur estiloan aldaketa handia dago aurreko liburuen aldean. *Gizajendearen ahitzea* libu-ruan, gainera, kontakizun eta hausnarketak pertsonaia ba-ten bidez azalduta daude, aurreko saiakeran ez bezala, eta nago, horrekin batera saiakeragintzan Diderotek bere iri-tziak ezagutarazteko erabili ohi zituen errekurtsio berberetz baliatzea (baita, bide batez, euskal letretara ekartzea ere...) ez ote duen nahita egin egileak entseguaren eta fikzio litera-turaren artean ezarri ohi diren muga lausoak gainditzeko.

Walter Benjaminen aingerua Gernikako bonbardaketatik utzi digu Ignazio Aiestaranek Joseba Jaka Beka dela medio.

Berriro ere H. Arendten argien bidez faxismoaren euge-nesiak eragindako ilunei antzemateko aukera eskaintzen zai-gu ikerketa bezainbeste literatura den testu interesgarri ho-netan, EHUren konplizitateen salaketa eta guzti... (Jünger honoris causa doktore izendatzea ere...!)

Dena den, Benjaminen historiari buruzko ikuspuntua da liburuan lantzen dena, baina idazleari euskal kulturaz ira-kurketa berria egin ahal izateko balio dio eta, zinez, balio du. Jarraipenaren zain geratuko gara, baina, halere, entsegu-

gintzak aurten eduki duen loraldian aipatu honek, dudarik gabe, bere tokia ukan, badaukala.

Euskara batuaren bigarren jaiotza dugu Xabier Amurizak hizkuntzarekin lan egiten eduki duen bizitza osoko bere esperimentziatik eman digun abisua:

euskara larri dago eta ebakuntza baten premia badu, eduki!

Haren ustez, bai lexiko alorrean, bai aditz eremuan, baita syntaxian ere, euskarak ez ditu behar bezala erabiltzen berez dituen hizkuntz aukerak; eta, ondorioz, inguruko hizkuntzekin alderaturik behintzat, gizarte eraginkortasuna ari da etengabe galtzen.

Ez dakit Arrietak eginiko Prousten itzulpena Xabierrek ezagutzen ote duen. Hartan, adibidez, perpaus luzeetan, iragan denborako aditzak eta erlatiboak esaldiak bereizteko azentu-marka erabiltzen baita (Etxaidek egiten zuenaren antzera...), eta, Amurizari horrenbeste min ematen dion sintaxi korapiloa askatzeko baliagarri dakiok. Baina, dudarik gabe, bai Amurizaren proposamenak baita Arrietarenak ere irakurri, zabaldu eta eztabaidatzeko, beste motako irakurle goa behar dugu... aurtengo literatur uztaren arabera, zorionez, bidean datorrena.¶



ALLANDE SOKARROS

Eskola, euskararen ghetto berria?

Eskerrak *Jakineko* irakurleek urtean behin bakarrik hartzen duten nire «literaturaren» berri... Ezen, gehiagotan idazteko aukerarik izango banu, oso litekeena da sarritan errepikatuko nituzkeela lelo berak, horien artean, lehenik eta behin, euskararen egoera tamalezkoa, Zuberoan bereziki, baina oro har ere, Ipar Euskal Herri osoan.

Berria egunkariak 2010. urte honetako azarotik plazartzan hasi den *Ipar Euskal Herriko Hitza* asteroko gehigarriaren 3. zenbakian idatzi nuen artikulu baten titularrak atsekabeen hartu ditu, beharbada, euskaltzale batzuk. Idatzi horren izenburua zen, hain zuzen: «Ikastola gero eta gorago, eta euskara beti eta gibelago». Halakoa baita egoera, nahitanaheiz, eta damu diot, zinez. Bai, Zuberoan dauden bi ikastoletan —bata Sohüta herrian, Alozen, aldiz, bestea— 120 ikasle daude 2010-2011 ikasturte honetan. Poztekoa bada, zalantza izpirik gabe, horrek ageri-agerian uzten baitu ikastola eskola «normal» bezala hartua dela Zuberoako jendar-tean eta ez euskararen etsaiek luzaz aurkezten saiatu diren «eskola politiko» bezala, zehatzago errateko politika jarrera jakin baten —abertzaletasuna, argiki mintzatzearren— jarraitzaileen eskola. Euren haurrak ikastolan ezartzen ez dituztenen artean ere, ikastola, gaur egun, hartua eta onartua da dagoenarentzako: euskaraz ikasten den eskola bat.

Hala, beraz, ikastolak gero eta arrakasta zein zabaldura handiagoa du Zuberoan, Ipar Euskal Herri osoaren arau. Il-do horretatik, pentsatzen ahal litzateke ikastolaren garaipen horrek ondorio baikorrak dakarzukiola jendartean, hots, eus-

kal hiztunen kopurua handituz, gizartearen euskalduntzea bultzatzen duela. Tamalez, baina, horrelakorik ez da nabaritzen... oso alderantzizkoa baizik! Nire gogoetan urrunago joan aurretik, erran dezadan, haatik —batzuek zalantzarik izango balute— beti izan naizela baikorra eta nire bizi-urratsetan egin ditudan guzti-guztiak ikuspegi baikor baten ildotik jokatzu egin ditudala. Alabaina, gogo baikorrekoa izateak ez du errealitatearen aurrean itsu egotea eragin behar, eta horregatik dut azken urteotan etengabe errepikatu Ipar Euskal Herrian euskararen egoera oso larria dela.

Hala da —nola ez?— Zuberoan ere, hemengo euskal kultur bizitasunak nolabait ezkutatu egiten badu ere zuberotarrak ez diren beste euskal herritarren begi-bistatik. *Ipar Euskal Herriko Hitzako* artikuluan zehazten nuen bezala, oso-oso gutxi entzuten da euskaraz Zuberoako herri jendetsuenak diren Maule-Lextarre, Sohüta, Bildoze-Onizepe, Garindaine edo Gotaine-Irabarneko karrika edo plazetan. Eta ez haur edo gazteen kasuan soilik, heldutako eta adineko bizilagunen kasuan ere. Herri txikiago eta «euskaldunago» batzuetan bai entzun daiteke jenderik euskaraz mintzo... baina 50 urtekoetatik goiti direnen artean, oso bekan —kasik sekulara ere, egia erran— hango haurren eta gazteen artean.

Zuberoan, euskararen egoera hitsaren «termometro» are tamalgarriagoa topa daiteke: pastoral bat ematen delarik herri batean. Pastorala... Zuberoako euskal kulturaren altxorra, euskararen atxiki, hazi eta garatu beharra aldarrikatzen dena aldi oro *Azken Perediküko* hitzetan, azken berrogei urteotan *urrezko aroa* bizi duela ematen duen Zuberoako herri-antzerki zaharberritua... Salbu, pastoral gehienetako —denetako errango nuke— mustrika edo trebatze saioetan gehienik entzuten den mintzaira frantsesa dela!... Hor ere, haur eta gazteen ahoan gehienik, baina ez horietan bakarrik.

Orduan, horrek zer erran nahi luke? Euskara, kultura adierazpen batzuen abagunetarako baliatzen den zerbait dela? Eguneroko jendarte harremanetarako baliatu beharrik ez den zerbait dela? Hitzetan, atxiki, hazi eta garatu beharreko

zerbait bezala gorai patzen den, baina ele eder horiek obratze unean bazter uzten den zerbait dela? Berriz ere damu diot, baina behartuta nago baietzarekin erantzutera galdera horiei denei.

Eta orduan, halako ondorioztatze latz eta garratza dator kit gogora. Euskararen adierazgune bakana ez ote den bilakatz en ari eskola! Ikastola, lehenik eta behin, jakina, baina baita neurri nabarmen txikiagoan Frantziako Hezkunde nazionalako klase elebidunak ere. Eskola euskararen mintzaleku lehena edo kasik bakarra ere, familia askoren kasuan... Hori, paradoxa ikasgarria, sinestezina, ganorabakoa! Euskararen gutxiesten, baztertzen, baliogabetzen eta ororen buru galaztzen hainbeste garrantzi izan duen eskola —Frantziako Hezkunde nazionalakoaz mintzo naiz, jakina— euskararen ghetto berria bilakatz en ari litzateke?!?... Bide hori egiaztatuta egonez gero, ez dakit nora goazen, benetan...

Jakin badakit, euskara amildegi bazterretik geldigabe hurbiltzen joate hori Ipar Euskal Herriaren egoera orokorrari lotuta dagoela, hots, gure herri honek bere aurrerabideak hautatzeko eta obratzeko eskubide eta baliabideak eskuetan ez ukatea. Politika kontu batez mintzo naiz, noski, bakoitzak ulertuko duenez. Egoera jakin baten itzulikatze ko baliabide politiko eta instituzionalak behar-beharrezkoak dira, geure eskuetan izanen direnik, jakina. Baina, argi geratu behar da, ahal edo baliabide horiek eskuetan edukitzea ez dela, inondik inora ere, nahikoa euskararen egoera erabat normalizatzea bermatzeko. Hortxe dugu ia 80 urteotan bere buruaz jabe den —ustez behintzat— Irlandako Errepublikaren kasu negargarria, horrek gaeliko hizkuntza bazterrean utzi baitu, kolonizatzaile ohiaren mintzairarekin jarraitzeko, lotsagabe. Eskubideak eta baliabideak lortzeak ezertarako ez du balio, euskarak nazio-hizkuntza izan behar duelako kontzientziarik ez bada. Eta kontzientzia hori nork izango du, abertzaleek ez badute, lehenik eta behin? Gogoan hartze eta horren arabera jokatu behar horretatik, baina, urrun gaude, oso urrun ere... Eta, anartean, euskarak atzerabidean... aurrera jarraitzen du!

Itzulpengintza, euskararen kinka larriaren seinale

Baikorra naizenik gero eta zailagoa izanen bazait sinetsaraztea ere..., beste adibide batekin nabaritu nahi nuke euskarak Zuberoan —eta oro har, Ipar Euskal Herrian— pairatzen duen kinka larria. Hori da itzulpengintzaren kontua. Iragan maiatzaren 15ean, Urdiñarbe herrian urtero egin ohi den *Müsikaren Egüna* kultur topaketen kariatara, eztabaida batean izan nintzen parte hartzaile. Antolatzaileek jarritako gaia zen: «Kültürarik izan leitea, hizkuntzarik gabe?». Bizi den hizkuntzarik gabe, erran gabe doa... Idatzi honetan aurretik emandako argumentu batzuk aditzera eman nituen, baina une batean erran nuenak eztabaida entzuten ari ziren batzuk harrিতuta utzi zituen, beharbada. Zuberoako euskal kultura biziarazten hainbesteko esku-hartzea duen Mixel Etxekopar musikari, kantari eta ikusgarri egile adiskideak, une batean, txaloak bihurtu nahi izan zizkidan, zintzoki oso, Zuberoako gazte batzuk —denak neskak... eta horrek ere zerbait erran nahiko luke— euskaraz itzultzen ikasteari trebatzen ari naizelakoan. Lan hori da Xiberoa Herri Alkar-goak 2005ean aho batez onartu zuen *Eüskararen libürü xurrian* zerrendatutako helburuetatik baten obratzea, hots, frantsesera hutsean diren idatzi gero eta gehiago euskaraz ezartzeko gai izango direnak trebatzea.

Mixel Etxekoparrek gogotik eta zintzoki txalotu nahi ninduen, egiten ari naizen lan honengatik... baina nik deblauki erantzun nuen, horrela jokatzuz gero ez nengoela batere segur euskarari mesederik egiten niola, eta gogoeta bazterre-raino eramanda, beharbada ere euskararen kaltetan jarduten nuela. Hitz horiek zuzenean edo euskal irratien bidez entzun zituzten batzuek, akaso, harrিতuta utzi nituen... Alta, horrelakoa erratearren, nire arrazoinamendua oso ulerterraza da. Azaldu nahi nuena zen, Euskal Herrian zer edo zer euskarara itzultzeak... argi baino garbiago erakustera ematen duela zelako egoera penagarrian aurkitzen den eus-

kara. Ezen, horrek argiki agerian ezartzen du gaiak lehenik eta behin frantsesez pentsatzen eta idazten direla... eta gero, kontzientzia ona edukitzearren edo, euskaraz ezarrarazten direla, espezialista batzuk behartuta horretarako. Gauzak horretan dira, nahitaez, eta sokari edozein aldetatik begiraturik ere. Frantsesetik euskarara itzultzen da... ez alderantziz! Horrek zer erran nahi du? Bere herrian bertan, hizkuntza arrotz bilakatua dela euskara!... Ezen, nola beste gisa azaldu daiteke, Euskal Herrian bertan, jatorrizko hizkuntza den euskarara itzuli beharra? Horretaratuak garenez, berriz ere diot gazte batzuk frantsesetik euskarara itzultzen trebatzearekin ez diodala euskarari mesederik egiten. Haatik, beste zer edo zer egin nezake orainokoa? Gutxien-gutxienez, euskara esparru publikoan ager dadin... inork gutxi ez badu euskaraz irakurriko ere. Zaila, benetan zaila da egoe-ra hits honen erdian egokienik jokatzea.

Aita Junes Casenave, euskararen aparteko zerbitzaria

Horrelako tonu ezkorra antzemanen zaion idatziari alde baikor bat emateko gisan, euskararen zerbitzari aparteko baten goraipamenarekin eman nahi nioke azken txanpa kronika honi. Aita Junes Casenave pastoral idazle, hiztegi egile, narrazio eta ipuin asmatzaile, gramatika atontzaile, euskararen ikasbide paratzaile eta beste hainbat eta hainbat lanen obratzaileari omen egitera natorkio. Aita Junesek ez daki zer den lan egin gabe geratzea. Aspaldiko ofizioa duen apaizgoari ere... 86 urtetan eman dio etena, horretara behartu baitute gainera! 2010eko uztaiaz gero, ez digu, irria ezpainetan eta begia bizi, Altxaiko apaizetxeko atea irekitzen, handik alde egin baitu. Gaur egun, Betarramiten anaidiak Donapaleun duen etxean aurkitzen da Aita Junes... erretiroan omen, baina han ere lan eta lan ari dela, ikerketa eta idazketetan.

Aita Junes Casenavek, euskararen zerbitzuan jarri denetik, beti erran izan du gure hizkuntzaren kontra etsaiek erabili

izan dituzten jokabideetatik batzuk itzulikatu egin behar direla. Frantses jakobino amorratuek euskararekiko lotsa edo ahalkea sarrarazi zieten gure gurasoei edo horien aurrekoei. Aita Junesen iritzian, norbaitek lotsa edo ahalkerik izan behar badu, horiek dira frantsesez bakarrik mintzatzen dakituen horiek... eta sarritan zein gaizki ere! Aita Junesen argumentua da, geuk, Ipar Euskal Herriko euskaldunok, frantsesa bai badakigula —beste aukerarik ere ez baitigute eman—, baina euskaraz ere badakigula, beraz frantximant edo erdaldunak baino gehiago garela. Egia da bai, Aita Junes, argi ageri da zeinek behar duen lotsati izan.

Euskararen alde tematsu eta irmo jokatzear gain, Aita Junes Casenave beti ere izan da, ildo honetan, arraileriaz edo umoreaz baliatzen jakin duena. Horren lekuko, pasadizo bat aipatuko dut. Donapaleuko Etxekopar ikastetxeko zuzendari egon zen urte luzeetan, euskara lantzen zen bertan. Euren haurrak euskara ikastera edo barnatzera behartzeko, Aita Junesek jokaera oso berezia baliatzen zuen gurasoen aldera. Ikasturte hasieran, gurasoei helarazten zien galdeketagirian honelako galdera berezia egiten zien: «Zure nahia al da zure haurrak (zuen hurrek) *ez dezan (ez dezaen)* euskara ikasi?»... Jakina, nehor ez zen ausartzen «bai» erantzutera... eta horra hor Etxekopar ikastetxeko ikasle guzti-guztiek euskara barnatzen zutela!

Jokabide arraroz izaten bazen ere, Aita Junesek gogoan argi hartuta zeukan euskara, edo hobeto erran euskaraz ikastea ezin dela Euskal Herriko seme-alabentzat hautuzko zerbait izan, behartuzkoa izateaz beste biderik ez dela... jendar-teak euskara mintzatzekoa dela gogoan hartzen eta hala gisa jokatzeko badu behintzat.¶



ANDRES URRUTIA

Jose Antonio Agirrereren heriotza, 50 urte geroago

2010ean bete dira 50 urte Jose Antonio Agirre lehendakaria hil zela. Parisen zendu zen, erbestean, Euskal Herrira itzuli gabe, gerra zibilaren galeraren ostean.

Askotxo esan ohi da heriotza hark markatu zuela halako etena, halako urradura, aurreko eta geroko euskal gizartearen barruan. Orobat, euskalgintzan, euskararen baitan sumatzen ziren haize berriak ez baitziren egoki uztartzen gerra aurretik zetozenekin.

Bada zerbait artifizioso, zerbait alegiazko horrelako baieztatze borobiletan. Sarritan kontzeptualizazio premiak eramaten gaitu horretara, nahi dugulako, nola edo hala, gure bizitzaren haria bera taxonomia bihurtu eta hurrengo belaunaldiei erakusteko sistematika egoki batez apaindu.

Errealitatea, hala ere, hori baino tinkoagoa izaten da eta egunero-egunero, gehienetan gu ohartu ere egin gabe, bate-tik bestera eramaten gaitu edo, hala nahi baduzue, eramaten du historiaren haria.

Hari hori, zoritxarrez, ez zen soka tinkoa Agirrerentzat, gerra zibilaren ondorengo aldietan, batik bat. Ahal zuena ahal zuela, beti aldeztu izan zuen euskara eta euskal kultura, eta sutsu babestu eta sustatu. Etena, zernahi gisaz, handia izan zen eta belaunaldi berriok askotan beste nonbaite-tik edan behar izan genuen eskuragaitz zitzaigun euskalduntasunaren ideia.

Nago, bestalde, ez ote dagoen gure zorigaiztoko historia honetan tarterik txikiena ere beste gogoeta batzuk egiteko

eta, hartara, ez ote den egiteko modukoa alegiazko jokoa, frankorentzat alferrikakoa izango dena baina aurten, Agirre-
ren heriotzak mendeurren erdia izan duenean, gurean ere
izan zena eta izan zitekeena erkatzeko balio dezakeena.

Nago, beraz, historia bera izango ote zen gurea, 1944. urte-
ko azaroaren hasieran, amerikarrek Bordeletik armada eka-
rri, Laidako eta Zarauzko hondartzetan lehorreratu, eta Fran-
coren parafernaliak Ebroraino uxatzea ezinbestekoa izan
balu.

Agirre, Bilbon 1944. urteko Gabonetan, Jaurlaritzaren bu-
ru eta Errepublikaren legezkotasunari eusten, herrialde eus-
kaldunen gobernu osoa osotuz eta amerikarren babespean.

Behinola adierazi zuen antzeko egoera Xabier Kintana
adiskideak bere *Ukronia* ipuin sonatuan. *Ukronia* hura latza
zen, euskara zigortzen baitzuen eta beheratzen.

Kintanak, haatik, hainbat gauzetan bete-betean asmatu
zuen, gerora ikusi eta bizi duguna aintzat hartuta.

Nik, aldiz, *Ukronia* berri baterako pausoak eman nahi di-
tut eta orduan posible izan ez zena, hots, Jose Antonio Agi-
rrearen gobernamendu osoa, iraunkorra eta demokratikoa,
Euskal Herriaren berrosatzea —euskara barne— ekarriko
zuen, irudikatu nahi dut euskaldun guztion arteko bake
antsiatu eta desiratuaren bidez.

Ez ditugu, ez, Jose Antonio Agirrearen hileta-elizkizuneko
jende-ilararen argazki zaharrak Bilboko Kale Nagusian ze-
har. Ez dugu, bistan da, berak desiratu zuen euskalgintzaren
azpiegitura osoa.

Badugu, bai, haren irakatsia eta guztion ahaleginez bizi du-
gun euskal kultura, 2010ean urte latza bizi izan duena. 2011.a
ere ez dator hobeago. Dezagun atxik euskara!

***Idatz & Mintz*, literatur aldizkariak 50. zenbakia ondu du**

Aurten egokitu zaio *Idatz & Mintz* aldizkariari, berrogei-
ta hamar zenbaki geroago, ospakizunaren txanda. Euskal

Herriko mendebaldean euskaraz lan egin nahi dugunontzat tresna baliotsua, kuttuna eta ezinbestekoa.

Literatura eta euskara, horra bitasuna, horra bi-bitako osagaiak, premiazkoak eta ordezkaezinak zin-zinezko kultura baten eraikitze eta mantentze lanetan.

Aldizkari bat, dena den, ez da esku bakar baten fruitua edo emaitza, baliabideak behar baitira, azpiegitura ere bai, arduradunak eta zer esanik ez... jarraitutasuna.

Euskal literaturaren gogoak eraginda, Labayru Ikastegiak batu ditu bere arlora hainbat idazle, hainbat kultura egile, euskararen eta literaturaren kezka dutenak. Eurak atondu eta helburu jakin batera norabideratu ditu, ustez, hori bai, bidegintza horrek, kaltea baino, onurak eta mesedeak ekarriko dizkiola euskarari.

Aldizkariaren izena Mikel Zarateren ipuin batetik dator eta xede du, euskararen ahozkoa, *mintz* bera, euskararen idatzizko *idatz* horren oztopo izan beharrean, akuilari eta languarri izatea.

Kontuak kontu, laster ohartu ziren horra bildutakoak bazi-rela nor aldizkariaren geroa ziurtatzeko eta esan eta egin, hala lortu dute, ekinaren ekinez, aldizkari bati hauspoa ematen dion hari fin hori, ia-ia ikusezina dena, gauzatzea eta garatzea.

Non dago horren arrazoi isila? Nire ustez, ekinean, aldi txarretan zein hobegoetan. Hoberena onaren aurkaria dela esan ohi da. Kasu honetan, esan dezadan argi, onenari eutsi zaiola zenbakiz zenbaki, hitz lauz, olerkiz, itzulpenez, herri literaturaren lanez zein liburu-aipamenez.

Ez da erraza halako lan bati hurrenez hurren eustea. Horrexegatik eta esandakoaren lekuko, irakurle abisatuak bazu, 50. zenbakian, aldizkaria egiten dutenen zerrenda eta bibliografia.

Han aurkituko ditu nork zer egin duen eta nola egin duen. Han aurkituko du, berebat, errealtate bilakatu den asmo baten gorpuztea. Han eta, nola ez, Labayru Ikastegiaren webgunean eta Bilbon ireki den erakusketan, bertara bildu baita urte horien eskarmentua.

Ez dira hauek garairik erosoenak euskal kulturarentzat. Non-nahitik datozkio baliabideen murrizketak eta ozta-ozta irauten du. Horrek meritu gehiago ematen dio holako ekimen bati eta gure laguntza ere eskatzen du, lehendik datorrenak segida izan dezan eta, esan gabe doa, etorkizuna ere bai.

Goresmenak, beraz, *Idatz & Mintz* eta bereziki bertako idazle eta parte-hartzaileei eta, jakina, gozo bezain indartsu, aldizkariaren sustatze honetan neke gabe ibiltzen den Igone Etxebarriari.

Bakea ere kultura da

Izatez, horixe da egun Euskal Herrian bizi dugun ardua nagusia. Gure gizartearen barnean bakea erdiestea, garaileak eta garaituak bereiziko ez dituen bakea.

Bake horrek zer ekarriko ote, eta ongi dago uste izatea ekar dezakeela euskararen aldetik askatasuna, guztiok euskara ikus dezagun etxeko eta etorkizuneko.

Bake horrek, bide beretik, ekar dezake egundoko garatzea euskararentzat eta, beharbada, berezko konbentzimendua, euskarak euskal sozietatearen barnean bizitza osoa eta betea izan dezakeela, hizkuntza bati dagozkion esparru eta eremu guztietan, haur jaioberrien ezpainetan hasi eta adinduen mihietan amaitu. Bateko, lagunarteko giro gozoa; besteko, goi mailako lanbideak, guztiek izan behar dute euskara protagonista.

Horretarako, ziur nago, bake horrek ekar dezakeela guztion artean egindako hizkuntza-politika eragingarria, *consensus* hitzari bere esanahi osoa eta zehatza emango diona.

Bake horrek, hala espero dezagun, luze gabe eraman gaitzake beste puntu batera, non guztiok batera ametsak egia eta egiak amets egin ditzakegun, euskal kultura osatu baten eskizian, beste hizkuntza eta kulturei zabalik eta munduan zehar barreiatu.

Bake horrek, bestela ere, laburtu eta urritu dezake euskararen beharakada eta komunikaziorako tresna bihurtu, inoren kontra aritu gabe.

Bake horrek osa dezake... eta hola jarraituko nuke, asmoak eman ahala, asko baitago egiteko eta jorrazteko.

Alegiazko gehiegikeriak. *Wishful thinkings?* Izan daiteke.

Artean, nondik-nahi begira nakiola ere, egin dezadan amets: *What if?* Balitz eta bazen...

Euskera agerkariak 90 urte bete ditu

1920. urtean argitaratu zuen lehendabizikoz Euskal Akademia sortu berriak bere agerkaria. Pierre Lhande euskaltzaina zen arduraduna eta hark ederki adierazi zituen gero-ko ildoaren nondik norakoak: bateko, Akademiaren erabakiak; besteko, ikerkuntza lanak, euskararen ingurukoak.

Euskera agerkaria gerra garai arte izan zen Akademiaren albiste-eramailea. Hantxe agertu ziren, besteak beste, Azkue zenaren idaztiak eta hamaikatxo testu, orduko euskalgintzaren lekuko zirenak.

Nekez egin zion aurre Akademiak gerraren patuari. Biziraun zuela gauza jakina da; bere adierazbideetan mutuarazia izan zela ere begi-bistakoa.

Petxa eta lorra ziren orduan euskarazkoak eta penaz onetsiak erregimen politikoaren begietan; alabaina, berriro ere erdietsi zuen Euskaltzaindiak aurrera ateratzea eta gerra aurrekoarekin lotura egitea. Hartara, lehen gerra osteko zenbakiak aurrekoak gogoratu zituen.

1956. urteaz geroztik, beti izan du bere presentzia euskal gizartean *Euskera* agerkariak. Batzuetan hornituagoa eta apainduagoa; bestetan, apalagoa, inguruabarrek hala aginduta. Guztietan, esan gabe doa, euskalgintzaren lekuko paregabea.

Aldiak aldi, berriztatzeko txanda ere etorri zaio *Euskera* agerkariari, eta 2009-2010 urteen karietara hala egin du, itxura ez ezik, barne-banaketa eta eskakizun akademikoak ere estandarizazio mailan jarritz. *Latindex* katalogoan sartua izan da eta laster hedadura zabaleko datu-baseetan ere ikusgarri eta erakusgarri egongo da.

Hartara, *Euskerak* lortuko du bere horretan irautea, egun-go eskakizun akademikoei muzin egin gabe eta teknologia berrien esparruan apustu sendoa eginda, Euskaltzaindiaren webgunean ikus daitekeenez.

Euskera agerkaria ahalegin kolektiboaren fruitua da. Fruitu horren emaitza eraberritua du orain eskura irakurleak eta baita gonbita ere, irakurle idazle izan dadin bertan.

Akarregik esan dit: *Xabier Lete zendu da*

Aspalditik jaso gabe nuen haren deirik, jakin ere ez nekien nondik zebilen gure Akarregi kostaldetarra. Berrikitan deitu didanean, bat-batean oihukatu dit, ezin gehiagoz, *Xabier Lete hil da!*

Egia esan, Akarregik asko miresten zuen Xabier Lete. Harrengandik ikasi zuen bazirela euskal olerkiak, euskara bera olerkigintzarako gauza zela, garaiko gizon-emakumeak kezkatzen dituzten ardurek bazituztela adierazbide egokiak euskararen baitan.

Aurkikuntza horrek, alabaina, ez zion bakerik ekarri Akarregiri. Aitzitik, ezinegona eta zirina ziren nagusi gerogarenean Akarregiren gogoan, nonbait norbaitek ostu zion kultura baten jabe zela konturatu baitzen.

Kultura horrek bazituen bere eramaileak, bazituen bere edukiak, bere moldeak, beste kultura askoren parekoak. Ito-ta ikusi zuen bere burua, ikasi beharrean, ikasteko gosez, eskura zituen iturri urri haiek ezin ase.

Akarregik jakin bazekien *euskara non eta bidea han* egin behar zuela. Bazekien, jakin ere, inguruabarrok ez zirela egokienak asmo horretarako.

Bazuen, baina, bide malkartsu horretan laguntzaile eta lagungarri. Hura poesia zen eta poesia horren langile sutua, Xabier Lete.

Luze iraun du urruneko gidaritzara horrek, liburuz liburu gauzatu denak. Liburuz eta, nola ez, kantuz eta musikaz, ongi ikasi baitu hark Leterena, herritarra izanaz gainera,

unibertsala ere badela. Hainbatez, eguneroko bizimoduan gu guztiok behar ordurik premiatsuenetan jotzen gaituzten horiek hitzez eta doinuz adieraztea alferrikakoa ez dela poema horietan ikasi zuen.

Akarregik, oraindik ere, barruan du Xabier Letek ondutako azken liburuaren aurkezpena Bilboko Kafe Antzokian. Beren-beregi etorri zen itsasaldetik hona, Lete entzutera. Eritasunaren markak ezagunak zituen. Ahul zen, ahotsa kraskatua zuen. Hala ere, bere poemak irakurtzen hasi zen, eta zirrara egundokoa izan zitzaion Akarregiri. Hura zen betiko Lete, agortu ezina, hitzaren jarioa emozio egiten zuena.

Akarregik jaso zuen, ekitaldiaren azkenean, harako libururtxoa, harako altxor laburra, poesiari buruzko gogoeta zekarrena, Letek egina.

Azken orrialdean, honetara zioen bertsoak:

Zer naiz orain, esaidazu
fereka nazazu
zure leialtasunaren hatz sotilekin,
neguan izan zen
zu aldendu zinenean,
ni ere urrun nago orain
eta bila nabilkizu goizaldeko ordu isiletan
dirudien guztiaren beste aldetik,
neguan izan zen.

(Xabier Lete, *Poesiaz gogoeta bat*. 2008)



EGUZKI URTEAGA

Kulturaren Euskal Planaren birmoldaketa. Kulturaren plan berria

2010 eraldaketa urtea izan da zalantzarik gabe euskal kulturaren arloan, bereziki Eusko Jaurlaritzan suertatu diren aldaketen ostean. Izan ere, ezker abertzalearen debekuaren (alderdien legea) eta hauteskunde arauen ondorioz (Bizkaiak eta Arabak legebiltzarkide berak dituzte biztanleria oso ezberdinak izan arren), Alderdi Sozialista Eusko Jaurlaritzaz jabetu da Alderdi Popularraren babesarekin. Gobernura iritsi bezain pronto, aurreko gobernuak osaturiko hainbat plan bertan behera utzi, EITBren Plan Estrategikoa adibide dela, ala birmoldatu ditu, Kulturaren Euskal Planaren kasuan lez.

Hain zuzen ere, 2010eko ekainaren 4an emandako prentsaurrekoan, Blanca Urgell Kultura Sailburuak iragarri zuen 2009-2012 Kulturaren Euskal Plana bertan behera utziko zuela eta plan berri bat osatzeko eta ondoren gauzatzeko asmoa zeukala, *Contrato Ciudadano por las Culturas* deiturikoa. Aldaketa hori justifikatzeko orduan, aurreko planen ga-beziak eta joera ezkorrak azpimarratzen zituen, alegia, herri-tarrekiko urruntasuna, kanpoarekiko irekidura eskasa eta kultura demokratikoa bultzatzeko beharra. Plan berria osatzeko txosten bat eskatzeaz gain, aurreko planen ekarpen eta mugak agerian uzteko asmoz, egutegi bat iragarri du: irailean Kulturaren Euskal Kontseilua batuko litzateke ildo estrategikoak finkatzeko eta abenduan plan berria onartuko luke, ministro kontseiluak onartu ostean, legebiltzarrean aurkezteko.

Hasiera batetik, Eusko Jaurlaritza berriaren joerak hainbat kritika jaso ditu, bai oposizioko alderdietatik, bai beste ad-

ministrazio publikoetatik (Foru Aldundiak eta Udalak), bai kultur elkarteetatik. Izan ere, gardentasun falta azpimarratzeaz gain, eragile guztiak ez baitira plan berriaren edukari eta nondik norakoei buruz jakinaren gainean jarriak izan, eta ez ditu udalen eta Foru Aldundien ekarpenak kontuan hartu. Hain justu, Euskal Kulturaren Kontseiluko Erakundeen arteko Batzordearen bileran, bereziki Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako arduradunek proposamenak egin zituzten euskara eta euskal nortasuna susta zitezen, baita ere euskal eremu geografiko eta linguistikoa errespetatuz. Baina, ez bata eta ez bestea ez ziren kontuan hartu.

Horrez gain, elkarte eta instituzio eragileek hainbat kritika egin dizkiote osatzen ari den plan berriari, hala nola: kutsu ideologikoa edukitzea eta euskal nortasuna ezabatu nahi izatea; marketin politikoa baliatzea eta berrikuntzarik ez ekartzea; memoria kulturala, euskal diaspora, hizkuntza eremua ala euskara gutxiestea; konkrezio falta; heldutasun eskasa prestakuntza fase laburraren ondorioz; ala ordura arte egindako lanaren ezagupen eza.

Kulturaren Euskal Planaren funtsak

Hain zuzen ere, kultur plan berriaren egileek azkarregi ahazten dute 2000z geroztik egin den lan oparoa. Eusko Jaurlaritzaren teknikariek gain, 300 bat pertsonen parte hartu dute Kulturaren Euskal Planaren osaketan, diagnosis egiteko, lortu nahi diren helburuak finkatzeko eta horretarako beharrezkoak diren estrategiak zein neurriak onartzeko. 12 azpitaldetan banatuak izan diren kultura eragile horiek beraien ezagutza, esperientzia eta ideiak bildu eta trukatu dituzte, modu bateratuan, kultura sustatzeko tresna egoki bat abian jar dadin.

Kulturaren lehen eta batez ere bigarren plana testuinguruan suertatu diren eraldaketak kontuan hartzen ahalegindu dira: 1) globalizazioa eta aldaketa teknologikoa; 2) birzentralizazio ekonomiko eta kulturalerako joera; eta 3) au-

kera berrien agerpena, erabileran, herritarren kontzientzian eta lurraldeetan. Era berean, bere burua munduan zehar garatzen diren pentsaera eta eginmoldeetan kokatu du, besteak beste: herritarren parte-hartzea, gero eta erabaki eraginkorragoak eta demokratikoagoak hartzeko eta kudeatzeko; Ongizatezko Estatuaren ereduan, gizarte bazterkeriaren aurkako gutxieneko politika soiletik, kultura sarbidea eta integrazio kulturala bultzatzea; garapen jasangarriari buruzko estrategia jarraitzea, beharrezkoak diren baliabide eta ekoizpen-ahalmenak jarritz; aro digitala barneratzea Lisboako Agenda bere eginez, alegia: jakintzaren ekonomia, guztiontzako informazioaren gizartea eta gizarte batasuna; Unesco-ren kultura aniztasunaren estrategiarekin bat egitea, nortasunak aintzat hartuz.

Funtsean, Kulturaren Euskal Planak ondorengo helburuak eduki ditu:

- Sare instituzionala eta sinergiak sortzen dituzten sektoreen arteko eta zeharkako ekimenak sendotzea.
- Sakontasunean irabaztea, kulturako sektoreekiko harremana adierazi ez ezik bertako azken zokoraino eta diasporaraino irits dadin, bai kultura ekoizpen eta zerbitzu gisara, bai kultura-kudeaketa modura.
- Sektorekako konpromisoak gehiago zehaztea eta elkarrekin jarraipena egitea; horretarako, erakundeek interes orokorraren alde lanean jarraitu behar dutelarik eta gizarteak azken hitza eduki behar duelarik.
- Bermatzea kulturako alor guztietako programek eta laguntza-sistemek lehentasuna ematen diotela euskarazko eduki eta zerbitzuak bultzatzeari.

Kulturaren Euskal Planaren ikuspegia

Kulturaren Euskal Planak hainbat ezaugarri kualitatibo dauzka. Nortasun eta lurraldetasun osagaiez gain, herritarren parte-hartzeari, informazioaren teknologia berriei ala berrikuntzari toki oparoa ematen die.

Kultura-politikaren zentralitatea herrialdeko politika gisa. Gaur egun, jakintza, baliabide nagusia bilakatu da, ezagutzak, irakaskuntzak, ikerkuntza-garapena-berrikuntzak, patenteek, datu-baseek ala sare sozialek erakusten duten bezala. Zentzu horretan, kultura politikak hiru kontzeptu bertaraten ditu: 1) gizarte-politika, esan nahi baita ezagutza hezurmamitzea, jakintzaren gizarte-sarbidetzea eta banatzea; 2) politika kulturala, kultura-kapitalaren alderdi guztietan, komunitate eta nortasun-kultura eraikitzean, kulturaz gozatzean eta sektore ekonomiko batean; eta 3) sistema guztiaren ibilmolderako sinergiak sortzen dituen zeharkako politika, ondorio ugari dituena. Planaren sustatzaileen aburuz, kultura-politika klasikotik herrialdearen erdigune den kultura-politikara jauzi egin beharko litzateke.

Euskal Herriko kultura eta hizkuntza-espazioaren kontzeptua. Kultura plan horrek Euskal Herria den harreman-esparruaren alde lan egiten jarraitu gura du, esparru horrek historia, kultura eta hizkuntza partekatzen baititu eta baita hizkuntza gutxitu baten diglosia ere; horrek diskriminazio baimorra eskatzen duelarik, ez soilik irakaskuntzan edo erakunde eta gizarte-mailan, baita kulturaren ekoizpenean ere. Plan horren egileak jabetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan soilik dutela eskuduntza, lege eta erabaki-esparruari eta herritarrei zor dieten errespetua kontuan izanik, harremanak ezarri behar dituztela, aurrea hartu behar dutela eta konpromisoak hartu behar dituztela. Barrura begira, askotariko espazio konplexua da, baina irekita daude kanpora begira bi norabideetan proiektuak gauzatzeko eremu globalean, nahiz eta badakiten trukea beti desorekatua izango dela. EAEn geometria aldakorra aplikatu behar dutela diote barrutik kanpora eta kanpotik barrura.

Gobernantza. Lehen Kultur Plana talde-dokumentu bat izan bazen, definizioan, garapenean, gauzapenean eta egingtzan, sortzen ari diren egitura berriekin, ez da administrazio eta sektoreen arteko harreman soila izango, bi eremuak autoerlaldatu baitira lankidetzara emankorra lortuz. Era askotara

adieraz daiteke. Batetik, administrazioa eta erakunde berriak (Behatokia, Kulturaren Kontseilua eta Lan Taldeak, Etxepare Institutua, etorkizuneko Arte eta Kultura Industrien Euskal Institutua), bakoitza bere talde profesionalarekin. «Interes orokorren eta ondasun publikoen erantzukizuna duenarentzat beharrezkoa eta posible den guztiaren markoak definitzen eta sektoreetako ardura eta parte hartzea definitzen lagunduko du horrek guztiak». Bestetik, harreman-eredu berriak ezartzea finantziario eta lankidetzaren ereduetan, eragileei diru-laguntzak emate hutsetik baterako erabaki eta kudeaketara joz.

Kulturaren sorrera eta erabiltzaileak. Luzaroan, enpresa ardatz duten helburu kuantitatiboak eman izan zaie lehentasuna. Orain, ordea, planaren sustatzaileen aburuz, alderdi kualitatiboak eman behar zaio lehentasuna, balio-katearen bi muturretan: sortzaileak eta kulturaren erabiltzaileak. Indarra ekoizpenetik eta ekipamenduetatik prestakuntza, sormen eta gizarte-erabilerara eraman beharko litzateke. Oreaka lortu beharko litzateke jabetza kolektiboaren eta kulturaren iturrien artean: ezagutza eta sormena.

- Sorkuntzari dagokionez, ezagutza eta kulturaren garaietan gaude, eta desafio nagusia ez dira edukitzaileak, ezta edukiak ere. Batik bat giza baliabideak, sormena, prestakuntza, esperimentazioa, irispideak, irudimena, jakintza eta aplikazioak hartu behar dira kontuan. Horretarako, paradigma aldatu beharra dago, gizartea aldatzeko eta adimen-sare zabala osatzeko.
- Erabiltzaileei dagokienez, bere portaera ezagutu beharra dago eta norabide baikorretara eraman. Txikitatik sustatu behar da kultura-adierazpenekiko zaletasun aktiboa, hezkuntza eta eskaintza batez ere, horiek baitira kultura-zaletasunak sortzen diren eremu nagusiak. «Helburua da eskaintzari tira egiteko baldintzak sortzea, eskaria sortuko duelakoan diharduen eskaintzaren joera konpentsatzeko. Eskaintza sustatzeko laguntza automatikoak eta heziketa, pedagogia eta kalitatea bateragarriak dira, eta

hauek dira eskariaren segmentu batzuetan ezarri beharreko politikaren ardatzak». Bide horretatik doaz zenbait antzerki edo musika-ikuskizunen formatuak dibertsifikatzea, ondareen aurkezpen birtuala, haurrei eta gazteei bereziki zuzendutako euskarazko DVDen eskaintza, hau da, erabiltzaileen premietara egokitzeko bidean.

E-kulturako politikei ekitea. E-kultura ez da kultura berria, une batean saretik igarotzen diren kultura-prozesuak baizik. Kultura digitalak kultura analogikoaren oinarrian datuen antzinako kultura tradizional edo klasikoa birziklatzen du. E-kulturako politika horietan bildurik agertzen dira: edukiak, balioaniztasuna, komunikazioa, interaktibotasuna, baliabide berriak, hiritar-sareen dinamizazioa, kudeaketa-era berriak, eta abar. E-kulturako politikari dagokionez, ekimen ugari bultzatu daitezke. Adibidez, *II. Euskadi Informazioaren Gizartean Planean (EIGP)* hauek ageri dira, orduko Kultura Sailak proposatuta: kulturari buruzko atari interaktibo bat Interneten (kulturaren informazioaren diseinua, garapena eta egintza, denbora errealean, instalazio kulturaletarako bisitaldi, gidari, zerbitzu eta ibilbide birtualekin), bai informazio kulturaleko web bidez (gida, eskaintza, sarreraren erreserba eta erosketa) bai telefonia mugikor bidez; euskal entziklopedia digital bat sortzea, baliabide kultural eleaniztutuekin, kalitatezko edukiak bilduz eta kanpoan gaikako alderdi kulturalen hedapena erraztuz; kultura ondarearen digitalizazioa eta zaintza sustatzea.

Berrikuntza kontzeptua zabaltzea. Kultura, fisikoa nahiz materiari gabea, zentzu-sortzailea eta berritzailea da beti, baina berrikuntza edo sormen guztia ez da kultura, eta ezin da kultura sormenaren edo berrikuntzaren zati izan. 2006ko abenduaren 4an, Europako Batasunak berrikuntzaren kontzeptu zabalagoa azaldu zuen. 2005ekoak kontzeptu hori jardura komertzial, teknologiko, antolakuntzazko, zientifiko eta finantzarioei bakarrik aplikatzen bazien, 2006koak prozesu, kalitate, komunikazio eta produktuei ere zabaltu zien. Aldaketa horrek aurrera dihardu, eta hor sartzen dira oina-

rri teknologiko handieneko esparruak edo historia eta ondare-edukiak digitalizatzeko edo sormen, ekoizpen eta edizio-prozesuak. «Formatu, prototipo eta serie pilotuen berrikuntza bera ere bat dator garapen esperimentalarekin, eta klusterrak ere antolakuntza berritzailea dira». Kultura Planaren sustatzaileek norabide horretan jarraitu behar dela diote.

Kultura, nortasuna eta irekidura

Gobernu berriak aurrekoari egin dion kritika nagusia izan da euskal nortasunari toki gehiegi ematea, aniztasunaren eta irekiduraren kalterako. Izan ere, arduradun sozialistek, euskal nortasuna norberakotasunarekin, itxidurarekin edo ezberdina denarekiko hoztasunarekin lotu dute. Ahazten dute bestearekiko komunikazioak eta trukaketak nortasun propioa edukitzea suposatzen duela. Dominique Wolton-ek dioen modura, XIX. eta XX. mendeetan zehar, pentsalari eta alderdi politiko frankok uste izan dute nortasunak komunikazioa oztopatzen zuela. Gaur egun, aldiz, mugak desagertzen diren neurrian eta globalizazioa nagusitzen den heinean, nortasuna komunikazioaren baldintza bilakatu da, zeren bestea subjektutzat ezagutu eta errespetatzeko, ezinbestekoa da norberak jakin dezan nor den eta nondik datorren. Nortasunik izan ezean, bestea mehatxu eta arrisku lez ageri da. Horren adibide hoberena hauxe da: nortasun propioa daukaten lurraldeetan, Euskal Herrian, Katalunian ala Britainian, arrazakeria eta xenofobia goraipatzen duten alderdi politiko eta elkarteak nahiko ahulak dira, Europako hainbat herritan gertatzen ez den gisara, Frantzia, Italia, Erresuma Batua, Austria ala Suitza adibide direla.¶